

Erdi Aroa eta Nafarroako erresuma

Historia 3. zikloan

gidaliburua

© IKAS euskal pedagogia zerbitzua, 2005

ISBN 2-84963-008-X

Baionako Imprimerie du Labourd irarkolan inprimatua, 2005eko martxoan.

AURKIBIDEA

☒ NAFARROA: KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

1. sekuentzia: **Kokapena**
2. sekuentzia: **Ezaugarri batzuk**

* NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK

1. sekuentzia: **Errege dinastiak**
2. sekuentzia: **Errege-erregina ospetsu batzuk**

* NAFARROA ETA MUSULMANAK

1. sekuentzia: **Sinesteak Erdi Aroan**
2. sekuentzia: **Etsaiak adiskide...**

* ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. sekuentzia: **Hiriak Erdi Aroan**
2. sekuentzia: **Eguneroko bizia**
3. sekuentzia: **Gudariak / Gazteluak**
4. sekuentzia: **Monasterioak / Zer lan monasterioetan**
5. sekuentzia: **Nafarroaren ekonomia**

* KONPOSTELA

1. sekuentzia: **Konpostelako beilariak**
2. sekuentzia: **Konpostelako bideak**

* NAFARROAKO ERRESUMA ETA EUSKARA

* NAFARROAKO ERRESUMAREN ZATIKETA

SEKUENTZIA BAKOITZEAN

Helburuak
Metodologia gaitasunak
Materiala
Hitz gakoak
Jakin
Jarduerak

KAPITULAREN AMAIERAN

Oroit
Ebaluaketa
Bibliografia eta bisitak

LEHEN KAPITULUA

Nafarroa: kokapena eta ezaugarriak

1. sekuentzia: **Kokapena**

2. sekuentzia: **Ezaugarri batzuk**

NAFARROA: KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

1. sekuentzia: Kokapena

Helburuak

- Garai hartako Europa nolakoa zen landu, gaurkoarekin erkatu.
- Lurralde batek muga-aldaketa nabariak jasan ditzakeela ohartu.

Metodologia gaitasunak

- Mapa baten irakurtzen ikasi.
- Leienda batez baliatzen usatu.
- Garai desberdinetako mapen erkatzen jakin.

Materiala

- Fitxategiaren 8., 30. eta 31. orrialdeak.
- Europa XI. mende erdian: mapa bat ikasle bakoitzarentzat (gidaliburutik).

Hitz gakoak

erresuma – konderria – dukerria – baronia – armarria

GEHIAGO JAKIN

Europako egoera

814an Karlomagno hil zenean, ondokoek (Karlos Burusoila, Luis eta Lothaire) beren artean banatu zuten Inperio Handia.

962an Oton I.ak Erromatar-Germaniar Inperio Saindua sortu zuen Europako erdialde osoa bereganatuz.

Europak inbasio handiak jasan zituen IX. eta X. mendeetan. Eskandinavia aldetik jin ziren bikingoak. Hegoaldetik, aldiz, musulmanak etorri ziren eta penintsulan kokatu (711-1492).

X. eta XI. mendeetan, Hego Europan, erresuma tipi batzuk sortu ziren: Aragoi, Nafarroa, Leon, Galizia, Kataluniako konderria... hots, Pirinioetako erresumen aniztasuna nabari da XI. mendean.

Penintsula erdia Kordobako kalifaren meneko zegoen. Musulmanen presentziak eragina bazuen Hego Europan.

Frantzia, oraino erresuma ttipia, eraikitzen ari zen.

Iruñeko eta Nafarroako erresumak

Abiapuntua Iruñeko hiria zen, Eneko Aritza haren buruzagi zela 824an.

Ordutik Iruñeko erregeek beren lurraldea zaindu zuten eta eremuaren handitzen saiatu ziren hiru mendez. Aragoiko Konderria, Leongo Erresuma eta Gaskoniako Dukerria ere denbora batez Nafarroari lotuak ziren. 1162an ez zen gehiago *Iruñeko Erresuma* deitzen baina *Nafarroako Erresuma*.

XI. mendean Nafarroa hedadura handienera heldua zen baina handik laster, 1200 urtean, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia galdu zituen.

Apurka-apurka, erresuma ahulduz joan zen, XVI. mendean bere independentzia galdu arte (baina ez oraino erresuma-izaera).

NAFARROA: KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

1. sekuentzia: Kokapena

Eneko Aritza

Eneko Aritza noiz sortu zen ez dakigu baina 852 irian hil zela bederen badakigu. Eneko Ximeno edo Iñigo Ximenez izeneko Pirinioetako buruzagi baten semea zen. Aritza izeneko familia IX. eta X. mendeetan izan zen. Aritzaren inguruan sortu zen Iruñeko errege dinastia (824-905), Iñigotarrak izenez ere ezaguna.

824an, Pepin I.a errege frankoak eta bere menpeko jaun euskaldunek armada bidali zuten Iruñera baina gibelatekoan, Orreaga-Garaziko mendietan, Eneko Aritzak eta bere suhiak frankoen armada garaitu zuten. Eblo (frankoa) eta Aznar Galindez I.a Aragoiko kondea preso hartu zituzten.

Baskoi nobleek Eneko Aritza aitzindari eman eta Iruñeko erresuma sortu zuten 824an. Eneko Aritzak Tuterako Banu Kasi godo-musulmanekin eta Gartzia «Gaiztoa» Aragoiko kondearekin bereziki izan zituen harremanak, halaber Arabako Bela familiarekin. Pentsatzekoa da frankoen menpe bizi ziren Pirinio bestaldeko euskaldunekin ere izan zituela loturak, historialari batzuen arabera hortxe baitzituzten erroak Enekoatarrek.

Garai hartan Iruñea baskoien hiri nagusia zen eta Eneko Aritzak hor kokatu zuen bere egonleku nagusia. Iruñea leku estrategikoa bilakatzearekin batera, frankoen eta musulmanen jomuga ere bihurtu zen.

Arabako lurraldeek etengabe jasaten zituzten Asturias aldeko godoen, Kasio familiaren eta Zaragozako musulmanen erasoak eta Iparraldetik zetozen frankoei aurka ere egin behar zuen Iruñeko buruzagiak.

Iturria: www.puntubi.com

JARDUERAK

Mendebaldeko Europa XI. mende erdian – Mendebaldeko Europa orain

(fitxategiaren 8. eta 30. orrialdeak)

- Lehenik denek elkarrekin maparen irakurketa egin. Ikus zein diren agertzen diren lurraldeak, haien izenak eta non kokatzen diren. Ikus leiendak ere zer dioen, kolore bakoitza lurralde bati doakiola.
- Mapa itsua bere leiendarekin ikasleei eman eta margoaraz.
- Hiztegi lana osa. Hiztegian *erresuma*, *konderri*, *dukerri* eta *baronia* hitzak bila.
- Europa XI. mendean eta Europa orain: erkaketa lana egin.

- Zer diozue XI. mendeko mapa honetaz?
- Itsasoak, ibaiak eta kontinenteak aurki itzazue.
- Nafarroa eta Euskal Herria non eta nola itxuratuak dira?

- 1. ariketa-fitxa banatu ondoan, mapak erka eta haurrak mintzaraz.

Nafarroa non koka (fitxategiaren 31. orrialdea)

Ahoz galdegin zer diren eta non diren gaurko Paris, Madril eta Iruñea. Mapan idatziz koka.

(segida hurrengo orrialdean)

NAFARROA: KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

1. sekuentzia: Kokapena

Fitxategiaren 31. orrialdea : idazki bakoitzari bere mapa eman eta zenbakiak laukitxoetan ezar (taldetan egin ariketa; ondotik, elkarretara eta eztabaida sor).

1 – Iruñeko erresuma

2 – Antso Handiaren garaiko erresuma zabala

3 – Nafarroako erresuma ttipia

4 – Nafarroako erresumaren zatiketa

- *Erresuma horrek beti izen bera ukan ote du?*

- *Noiztik noiz arte iraun du guti gorabehera? Zenbat urtez?*

- *Beti eremu bera ukan ote du? Zer aldaketa jasan du? Zein mendetan?*

- *Gaur egun badea oraino Nafarroako erresumarik? Eta Nafarroako erregerik?*

NAFARROA: KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

2. sekuentzia: Ezaugarri batzuk

Helburuak

Lurralde bakoitzak bere ezaugarri bereziak zituela ohartu: armarriak eta zigiluak ikertu.

Metodologia gaitasunak

Dokumentu ikonografikoen ikusten eta ustiatzen ikasi.

Materiala

- Zigiluak: fitxategiaren 10. orrialdea.
- Entziklopedia bat.

Hitz gakoak

zigilua – armarria – pergamina – ezkoa

GEHIAGO JAKIN

Zigiluak

Txanpona bezala, zigilua errege baten ezaugarri garrantzitsuenetarik zen. Zigilua pergamino baten egiaztatzeko baliatzen zuen erregeak, guk gaur egun izenpedura bezala.

Zigiluak ziren agintarien ezaugarri nagusiak. Orain ere edozein erakundek edo elkartek horrelako seinaleak baditu (gaurko logoek ez ote dute funtzio bera?). Lehen, zigiluak ziren errege boterearen ezaugarri edo nolazpaiteko aginte edo erakunde baten marka irudikatzen zutenak. Frantziako erregeak XIV. mendean izenpeduraren erabiltzen hasi ziren (Joan II.aren erregealdian); ordu arte zigilua baliatzen zen. Izenpedurak ez zuen halako inportantziarik jendeak irakurtzen ez zekielako. Frantzia, oraino erresuma ttipia, eraikitzen ari zen.

JARDUERAK

Zigiluak (fitxategiaren 10. orrialdea)

- Behaketa: Frantziako eta Nafarroako zigiluen berdintasunak eta ezberdintasunak. Elkarrekin behatu ondoan, eztabaida daiteke.

- Zer animalia eta ikur agertzen du errege bakoitzak?
- Zigilu hauetan ba ote da berdintasunik?
- Zerez eginak ziren zigiluak?
- Zertako ziren?
- Gaur egun erabiltzen direa oraino? Zerk ordezkutzen ditu?

(segida hurrengo orrialdean)

NAFARROA: KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

2. sekuentzia: Ezaugarri batzuk

- Oraingo dokumentu ofizialek dauzkaten seinaleetan edo elkarte eta erakundeen ikurretan iker.
- Ikasleen herriko eta lurraldeko ikurrak bila.
- Oraingo Nafarroako erkidegoaren ikurra bila.
- Eskolako logoa edo zigilua asma (non ez den jadanik egina). Zergatik ez antola lehiaketa bat ikasle-taldean artean?

OROIT

Erdi Aro garaian Europako lurraldeak ez ziren gaur bezala banatuak. Baziren orain ez diren herrialde batzuk. Garai hartan Nafarroako erresuma ere sortu eta hedatu zen. Mendeak iraganez bezala, mugak ere aldatu zitzaizkion. Nafarroak beste erresumek bezala bazuen bere armarrria eta nafar erregeek beren zigilua.

NAFARROA : KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

EBALUAKETA

- XI. mendeko mapa politikoa hurrei eman : erresuma edo beste lurraldeen mugekin baina izenik gabe. Bi herrialde bederen izendatu eta idatzi behar dituzte. Ondoan den mapa emanen zaie.
- fitxategiaren 31. orrialdeko ariketa-fitxa osa.
- *Txanpon eta zigilu* hitzen definizioak eman. Hitza bere definizioari lot.

txanpon : metalezko diru pieza.

zigilu : agiri baten egiazkotasunaren bermatzeko irudia.



BIGARREN KAPITULUA

Nafarroako errege-erreginak

1. sekuentzia: **Errege dinastiak**
2. sekuentzia: **Errege-erregina ospetsu batzuk**

NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK

1. sekuentzia: Errege dinastiak

Helburuak

- Nafarroako errege-erreginen dinastien kronologia laburra egin.
- Erregetza zer den ulertu ezaugarri batzuen bidez. Adibidez: boterea edo eskumena familia berean gelditzen da gizaldi batetik bertzerera.

Metodologia gaitasunak

- Zuhaitz genealogiko baten aztertzen ikasi.
- Ikerketa bat nola egin entziklopedia baten laguntzarekin.
- Ardatz kronologiko baten osatzen trebatu.

Materiala

- Nafarroako errege-erreginak: fitxategiaren 11. orrialdea.
- Nafarroako lau errege-erreginak: fitxategiaren 32. orrialdea.
- Entziklopedia bat.
- Afixa huts batzuk.

Hitz gakoak

dinastia – genealogia – zuhaitz genealogikoa

GEHIAGO JAKIN

Dinastia

Dinastia errege-erreginen leinua da: errege familia bereko belaunaldien segida. Horrela, Europa mendebaldeko erresumetan erregimen monarkikoa belaunaldiz-belaunaldi jarraitzen zen. Agintea erregeak bere haurrei pasatzen zien. Klovisen erregealditik Luis XVI.arena arte, bost dinastia ezagutu ditu Frantziak: Meroveotarrak, Karolingiarrak, Kapetarrak, Valois etxeak eta Bourbonenak. Nafarroako erresumak, aldiz, zortzi dinastia izan ditu 1610 arte. Jakin dezagun Trastamara-ko dinastiaren erroak Aragoin direla, Bourbon, Kapet eta Evreux-koenak Frantzia iparraldean eta Labritenak Gaskonian.

JARDUERAK

Nafarroako errege-dinastiak (fitxategiaren 11. or.)

Behaketa lana talde handian.

- Zenbat dinastia agertzen da zuhaitz horretan?
- Dinastia horiek zein izen zuten?
- Zein izan da errege eta erregina gehiena ukan duen dinastia?
- Zure ustez zer adierazten dute errege eta erreginen izenen azpian agertzen diren zenbakiek?

NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK

1. sekuentzia: Errege dinastiak

- Taula hau afixa gisa antola eta bete, fitxategiko 11. orrialdeko informazioak baliatuz.

Dinastia izenak	Eneko dinastia	Ximeno dinastia	...					
Errege-erreginen kopurua								
Noiztik noiz arte iraun duen								
Iraupena urtetan								

- Taldeen taulak paretan ezar eta bakoitzak berea aurkez dezala. Erkaketa egin ondoan, ikasle bakoitzak bere historiako kaierean kopia dezake.
- Entziklopedian bila Frantzian garai haietan zeuden dinastiak eta Nafarroakoekin konpara (talde ttipitan egin daitekeen ikerketa lana).

- Zenbat dinastia iragan dira Frantziako errege-tronuan?
- Zein dira?
- Iragan ote da izen bereko dinastiarik Nafarroako errege-tronuan?
- Hala bada, garai berean agertzen direa?
- Zer erran nahi du horrek?
- Frantziako dinastia horietan, ba ote da ezagutzen duzuen dinastiarik? Zergatik zaizkizue ezagunak? (Hortik atera daitezke Frantziako errege-erregina izen ezagun batzuk, ikasleek erreferentzia gisa ukan ditzaten). Historiako kaierean idatz eta ahalaz dokumentuak ekar.

NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK

2. sekuentzia: Errege-erregina ospetsu batzuk

Helburuak

- Nafarroako errege-erreginen dinastien kronologia laburra egin.
- Erregetza zer den ulertu ezaugarri batzuen bidez. Adibidez: boterea edo eskumena familiaberean gelditzen da gizaldi batetik bertzero.

Metodologia gaitasunak

- Zuhaitz genealogiko baten aztertzen ikasi.
- Ikerketa bat nola egin entziklopedia baten laguntzarekin.
- Ardatz kronologiko baten osatzen trebatu.

Materiala

- Nafarroako errege-erreginak: fitxategiaren 12. eta 32. orrialdeak.
- Entziklopedia bat.
- Afixa huts batzuk.

Hitz gakoak

dinastia – genealogia – zuhaitz genealogikoa

GEHIAGO JAKIN

Fitxategiaren 12. orrialdeko irudiak

- “Iruñeko lehen erregearen izendatzea”: XIX. mendeko margolana, Joakin Espalter-ek 1865ean egin.
- “Urraka erregina”: horma-pintura, non ez den eskuizkribu bateko miniatura. X. mendeko irudikapena.
- Karlos Prestua eta haren emaztearen irudikapena (XV. mende hasieran egin): Iruñeko katedralaren barnean denek ikus dezakegun monumentua.

Lehen irudiaz zer erran

Joakin Espalter-ek XIX. mendean egin margolana. Kontuan har hamar mende iragan direla gertakariaren eta margolanaren artean.

Iruñea aldeko lurraldeko lehen aitzindari militarra Eneko Aritza izan zen. Ez dakigu noiz sortu zen baina guti gorabehera 852an hil zela bai. Eneko Aritza ez zen errege izan, Iruñea inguruko (garai horretan *Nafarroa* hitza ez zen erabiltzen) jauntto militar garrantzitsua baizik (1960tik goiti historiografiak gauza hori argitu zuen; José Maria Lacarrak eta Ertaroko ikertzaileek bereziki).

NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK

2. sekuentzia: Errege-erregina ospetsu batzuk

Bigarren irudiaz zer erran

Urraka Iruñeko erregina Antso Abarkaren (970-994) emaztea, Albeldako eskuizkribu baten miniatura (X. mendekoa).

Fitxategiaren 13. orrialdeko irudiak

- Orreagako elizako beiratea. Antso Azkarra armadaren erdian gudaldiaren garaile. José Maumejean artistak 1906an egin artelana.
- Antso Azkarraren hilobia Orreagan (gorpuzkinak Orreagara ekarri zituzten 1912an).

Beiratea

Beiratea biziki zabaldu zen Erdi Aroko edergintzan, bereziki eraikin handietan (katedralak). Anitzetan urdina eta gorria ziren kolore nagusiak. Liburu baten moduan irakurtzen dira: gehienetan, ipuin, leienda edo gertakari historiko edo erlijioso bat azaltzen dute. Komunzki, ezkerretik eskuinera eta goitik beheiti irakurtzen dira (www.centre-vitrail.org).

Orreagako beiratea arras berria da: XIX. mendearen hondarrekoa da. Beiratearen parte bat baizik ez da ageri fitxategiko argazkian. Urdina kolore nagusia da eta pertsonaia inportanteena Antso Azkarra. Oharrak egin erregeak daukan ezkutuaz (zeren itxura agertzen da?). Beirate osoaren ikusteko, Orreagako monasteriora joan behar da.

Erregearen begitarteari so egin. Zergatik begiak zerura buruz dauzka?

Kateak

Nafarroako erresumaren irudikatzeko agertzen diren kate ezagunek Antso Azkarrarekin badute zerikusirik. Leiendak dioenez, Antso Azkarrak musulmanen kalifaren oihalezko etxearen inguruko kateak hartu zituen Andaluziako Las Navas de Tolosa-ko gudaldian eta haien itxura armarrietan ezarri.

Erran behar da istorio hau leienda dela eta gudaldi hori aitzin ere, horrelako ikurrak agertzen zirela nafar armarrietan.

Arrano beltza

Arrano beltza agertzen da Antso Azkarren armarrietan ezen bere amaxiren aldetik Normandiako "*De L' Aigle Rotrou*" familiaren ahaide zen. Ikur hori ez zen erresumaren sinboloa, Antsoren dinastiarena baizik.

Antso Abarka, Iruñeko Erregea

Antso Abarka ez dakigu zuzen non eta noiz sortu zen baina bai 994an hil zela. Iruñeko Errege eta Aragoiko Konde izan zen (970-994).

NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK

2. sekuentzia: Errege-erregina ospetsu batzuk

JARDUERAK

Nafarroako errege-erreginak. Antso Azkarra (fitxategiaren 12. eta 13. orrialdeak)

Dokumentuen behaketa talde handian.

- *Zer ikusten da 12. orrialdeko lehen dokumentuan?*
- *Noiz egina izan da erretaula hori?*
- *Ikusi duena margotu ote du tindatzaileak? Zer ondoriozta dezakegu horretatik?*
- *Beherean, ezker aldean, zer agertzen da? Non aurkitzen da?*
- *Nor dira hor agertzen diren pertsonaiak?*
- *Beherean, eskuin aldean, zer dokumentu mota da?*
- *Zer garaitan margotua izan da?*

NAFARROKO ERREGE-ERREGINAK

OROI

Nafarroako erresuma bilakatu aitzin, Iruñeko Erresuma deitzen zen Nafarroa. Hasieran buruzagi militar ospetsu batek agintzen zuen: Eneko Aritzak.

Ondotik, errege eta erregina franko iragan zen Nafarroako tronuan. Inguruko erresumetan bezalatsu, dinastia desberdinetakoak ziren. Dinastia familia beretik datozen errege-erreginen leinua da.

Horrek erran nahi du Erdi Aro garaian, ez zutela jendeek hautatzen beren erregea edo erregina baina errege familiako norbait bilakatzen zela agintari (aita hiltzen zenean, semea, adibidez).

Nafarroako errege-erreginetan arras ezagunak dira Antso Handia XI. mendean, Antso Azkarra XII.ean eta Labriteko Joana XVI. mendean.

EBALUAKETA

- Ikus 32. orrialdean, ariketa-fitxa: Nafarroako lau errege-erregina.
- *Eskuizkribu edergarri eta beirate* hitzen definizioak irakasleak idatziko ditu eta hurrek hitza eta definizioa elkarlotu beharko dituzte.
 - *Eskuizkribu edergarri*: Erdi Aroan eskuizkribuen apaintzeko egiten ziren margolan eta marrazkiak. Miniatura.
 - *Beirate*: berinezko edergailua.
- Ardatz kronologikoa eman eta hartan errege-erregina hauek koka: Eneko Aritza, Antso Nagusia, Antso Azkarra eta Labriteko Joana.
- Zer da erregetzaren ezaugarri nagusienetarik bat?
 - *Erregea populuak hautatzen du hauteskunderen bidez.*
 - *Populuak ez du errege edo erreginaren hautatzerik. Gizaldi batetik bertara, boterea familia berean gelditzen da.*

BIBLIOGRAFIA ETA BISITAK

- Nafarroako errege eta erregina guzien zuhaitza: Elhuyar-en hiztegi entziklopedikoa.
- Informazioa: www.puntubi.com, www.es.geocities.com edo Elhuyar entziklopedia: *nafar erregeak*.
- Interneten erreferentziak eskuizkribu edergarriez (miniaturak): www.enluminure.com/histoire
- Ikusteko: • Iruñeko katedralaren barnean Karlos Prestuaren eta haren emaztearen hilobia.
 - Leireko monasterioko elizan Nafarroako errege-erregina batzuen gorpuzkinen kutxa eta izen zerrenda.

HIRUGARREN KAPITULUA

Nafarroa eta musulmanak

1. sekuentzia: **Sinesteak Erdi Aroan**
2. sekuentzia: **Etsaiak adiskide**

NAFARROA ETA MUSULMANAK

1. sekuentzia: Sinesteak Erdi Aroan

Helburuak

- Erdi Aroan sineste eta erlijio desberdinak bazirela ohartu.
- Goi Erdi Aroan jende xehea ez zela oraino giristintua ulertu.
- Fede kristauaren eta mahometarraren ezaugarri nagusiak bilatu.
- Musulmanen izateaz, jatorriaz eta kokalekuaz jabetu.

Metodologia gaitasunak

- Mapa baten aztertzen ikasi.
- Idazki baten ikertzen usatu (idazlea, hizkuntza, garaia...).
- Euskarri desberdinak baliatuz, informazioak bilatu.

Materiala

- Nafarroa eta musulmanak: fitxategiaren 14., 15. eta 33. orrialdeak.
- *Ipurbeltz* saileko ale bereziak: Iker eta Ixone (*Orrazi magikoa*, *Gaizkiñe*, *Zahagi urrea*, *Lurraren bihotzeraino*, *Ortzadarreko belarra*).
- Hiztegiak, entziklopediak, Internet...

Hitz gakoak

sineste – erlijio musulman – erlijio katoliko – musulman – pagano

GEHIAGO JAKIN

Las Navas de Tolosa eta kondaira epikoa (fitxategiaren 14. orrialdea).

Kondaira hau idazkera epikoan emana da, Errolanen Kantua zabaldu zen bezala. Kondaira epikoak gertaera bat edo pertsonaia bat goraipatzen du errealitatetik baztertuz espantu eta harrotasun handirekin. Erdi Aroan olerki epikoa Europa guzian baliatzen zen.

Fitxategiaren 14. orrialdean horrelako izkribu baten adibidea daukagu. 1212. urtean idatzia, urte berean iragan zen Las Navas de Tolosa Andaluziako gudaldia eta garaile atera Antso Azkarra nafar erregea. Mairuak eta kristauak aipu dituen dokumentu honetan goraipatzen da Antso Azkarra.

Musulmanen hedapena eta Errekonkista

VIII. mendean musulmanek Iberiar penintsula gehiena konkistatu zuten. Haien eragina laster hedatu zen Pirinioetaraino eta Frantzia hegoaldeko lurraldeetaraino. Akitaniarrak eraso zituzten musulmanek eta Karlos Martel aitzindari frankoak Poitiers hirian gelditu zituen 736an, Eudes Akitaniako dukearen laguntzarekin. Karlos Martel Karlomagnoren arbasoa zen.

Abd al-Rahman III.ak Iruñea suntsitu zuen 924. urtean. Geroxeago, 929an, musulmanek kaliferri bat eraiki zuten Kordoba hirian.

Mundu kristaua edo mendebalدارra batu zen musulmanen penintsulatik kanpo emateko eta gudu luzea hasi zuten. Gudu hori **Errekonkista** deitzen da. Ez zen iraunkorra izan. Eten anitzekin, VIII. mendean hasirik 1492an bururatu zen, Errege-erregina Katolikoek Granada musulmanei hartu zietenean.

NAFARROA ETA MUSULMANAK

1. sekuentzia: Sinesteak Erdi Aroan

Sinesteak eta erlijioak

Sinesteak betidanik bazituzten jendeek, erran nahi baita fidatzen zirela mitologiako jainko, pertsonaia edo izateetan. Erdi Aroan, Europa mendebaldean, aitzineko sineste zaharrak kasik desagertu ziren eta erlijio berriak nagusitu. Erlijioa sinésimen batzuetan oinarritzen den dogma eta errito multzoa da. Dogma hori idazki sakratuetan (Ebanjelioak, Korana) eta haien interpretazioan finkatzen da.

JARDUERAK

Ipurbeltz aldizkariaren ale berezietako *Iker* eta *Ixone* saileko komikiak

- Talde ttipitan (hiruzpalau ikasle) komikien azterketa egin. Komiki ezberdina eman talde bakoitzari. Galdegin artoski irakur dezaten lehenik.
- Galdera hauek emaiten zaizkie laguntzeko:

- Zer liburu mota duzue aitzinean?
- Noren abenturak kontatzen ditu?
- Non gertatzen da?
- Noiz gertatzen da? (historiako zer garaitan eta urteko zer unetan?)
- Bospasei lerrotan konta horko gertaerak.
- Zein dira ipuinean agertzen diren pertsonaiak?
- Zein dira egiazko pertsonaiak eta zein alegiazkoak (euskal mitologian ezagunak)?

Talde ttipitan egin lana talde handian aurkez, interesatzen zaizkigun informazioak arbelean idatziz (mitologiaz direnak). Elkarrekin gogoeta zer ondoriozta dezakegun ipuin horietarik eta kaierean idatz: *Garai hartan*, *Goi Erdi Aroan*, *herri xeheak ez zuen jainko bakar baten baitan sinesten*. *Jendea paganoa zen*. *Horrek ez du erran nahi sinesterik ez zuela*. *Mitologiako pertsonaiengan sinesten zuen*.

Antso Azkarra (fitxategiaren 13. eta 14. orrialdeak).

- Aitzineko sekuentziarekin lotura egin, Antso Azkarra nor zen elkarrekin berrikusiz.

Nafarroa eta musulmanak (fitxategiaren 14. orrialdea).

- Mapa: musulmanak Europan, XI. mendean.

Dokumentu behaketa talde handian. Ohar eta galdera zenbait:

- Zein dira leiendan agertzen diren bi hitzak?
- Zer erran nahi dute?
- Zein dira kristauak?
- Zein dira musulmanak? Nondik datoz?
- Zein dira sinesteak?
- Zein dira erlijio kristauaren eta musulmanaren arteko desberdintasunak?
- Mapa horretan, non kokatzen dira kristauak? non musulmanak?
- Zein dira mapan berean agertzen diren bi hirien izenak?
- Norbaitek ba ote daki zerbait hiri horietaz?

- Fitxategiko 33. orrialdeko ariketa-fitxa osa.

(segida hurrengo orrialdean)

NAFARROA ETA MUSULMANAK

1. sekuentzia: Sinesteak Erdi Aroan

- Talde ttipitan (lauzpabost ikasle), 14. eta 15. orrialdeetako testuen kanpo ezaugarriak azter. Taldeen erdiek 14. orrialdekoa aztertuko dute, eta bertzeek 15.ekoa. Galdera hauek ematen zaizkie laguntzeko (arbelean idatziz edo orri batean):

- *Zer urtetan idatzia izan da dokumentu hau?*
- *Nork idatzi du?*
- *Zer hizkuntzatan idatzia izan da jatorrizko (egiazko) testua?*
- *Nor dira testu honetako pertsonaia nagusiak?*

Talde ttipitan egin lana talde handian aurkez, informazioak arbelean idatziz, ondotik erkatzeko gisan. Eztabaida talde handian eta ondoriozta.

- Urte bereko dokumentuak direa?
- Antso bera dea bietan?
- Zer erran dezakegu hizkuntzez eta idazteko moldeaz?
- Aztertu elementuekin, berriz talde ttipietara itzul eta talde bakoitzak aitzinean duen testuaren bilduma egin erranaldi pare batez.
- Talde bakoitzaren testua ozenki irakur talde handian. Oharrak eta zuzenketak egin. Bakoitzak bere historiako kaieretan idatz.
- **Sineste, erlijio, kristau, musulman**: lau hitz horietaz informazio gehiago bil, hiztegieta, entziklopedietan eta Interneten...

NAFARROA ETA MUSULMANAK

2. sekuentzia: Etsaiak adiskide

Helburuak

- Nafarroako Erresumaren eta musulmanen arteko harreman bikoitzari ohartu: garai batzuetan bakean bizi ziren, harreman onak bazituzten; bertze garai batzuetan, aldiz, guduka ari ziren.
- Ideia hori orokortuz: Erdi Aro garaian erresumen arteko bake eta gudu harremanak azaldu.

Metodologia gaitasunak

- Mapa baten aztertzen ikasi.
- Idazki baten ikertzen usatu (idazlea, hizkuntza, garaia...).
- Euskarri desberdinak baliatuz, informazioak bilatu.

Materiala

- Nafarroa eta musulmanak: fitxategiaren 14., 15. eta 33. orrialdeak.
- Hiztegiak, entziklopediak, Internet...

Hitz gakoak

ituna – eskuizkribua – Errekonkista

GEHIAGO JAKIN

Harremanak

Abd al-Rahman III.ak 924. urtean Iruñea suntsitu zuela dio nafar historiak. Baina jakin behar da bizpahiru mendez (X. mendetik XIII. menderaino) musulmanak eta euskaldunak tarteka bederen harreman onetan bizi zirela, nahiz eta gatazka kronikoak zeuden musulmanen eta Pirinioetako erresumen artean.

Adibidez, X. mendean, Antso Abarkak Abda bere alaba Al-Mansur musulmanen aitzindari-gerlariarekin ezkondu zuen. XII. mendean, badira oraino islama praktikatzu bizi diren Nafarroako erresumako auzogune musulmanak, bereziki Tuter aldean.

Artegitntzan ere musulmanen hatza bada. Margolanetan eta zizel-lanetan arabeskoak egiten zituzten, marrak eta hostailak elkar gurutzatuz.

Leireko musulmanen garaiko kutxa (fitxategiaren 15. orrialdea)

Kutxa hau boliz egin zuten 1005. urtean. Ez da arras arte arabiarra baina Espainiako estiloarekin nahasia. Kutxa honetan arabeskoak ikus ditzakegu. Leireko monasterioan egon ondoan, Nafarroako erakustokian (Iruñean) dago gaur egun. Al-Mansur gudari musulmanaren semeari egindako oparia zen.

Zibilizazio islamiarraren aztarna artistikoak hegoaldeko penintsula iberikoan aurki daitezke, batez ere Kordobako, Sevillako, Granadako eta Zaragozako eraikinetan, eskulturan eta marrazkietan.

Ohar bat kutxari buruz: islamak debekatzen zuen bizidunen irudikapena eta kutxa honetan bizkitartean bi pertsonaia badira, bai eta bi xakur azpian, hots, estilo espainiarra eta arabiarra, biak nahasirik daude.

NAFARROA ETA MUSULMANAK

2. sekuentzia: Etsaiak adiskide

Hitzarmena (fitxategiaren 15. orrialdea)

Bi erregeren arteko bake eta adiskidantza bideratzeko hitzarmena. Bi erregetarik bat: Antso Peñlengoa Iruñeko Erregea eta bestea mahometar agintaria, Zaragoza, Aragoiko hiriburuaren jabea. Aragoiko erregearen aurka, musulmanen aitzindariak bat egin nahi du nafar erregearekin: musulman agintariak Antsori geriza eskatzen dio diruaren truke.

Testuko hitz zailak: **Kaparroso**: Nafarroako Erribera aldean den udalerria

Tutelgen: Tudellén, Tuteran ondoan den nafar herria.

JARDUERAK

Aitzineko sekuentzian galdegin zen etxeko lanen aurkezpena.

- Hiru hitz hauek arbelean idatz, beren erranahiarekin, eta elkarrekin komenta:

- **Errekonkista**: berreskuratzeko ekintza.
- **Eskuizkribu**: eskuz idatzitako testu bat.
- **Itun**: hitzarmen. Bi pertsona edo gehiago adostasunera heltzen direnean izenpetzen duten idazkia.

- Aitzineko sekuentziako talde eta testu berak atxik. Testu hori irakur, konpreni, eztabaida. Izenburu bat asma.

14. orrialdeko testua:

- Zer harreman mota agertzen da testu honetan: harreman baketsuak ala kalapitasuak?
- Noren artean?
- Nor zen Nafarroako Errege?
- Zer sinestetakoak ziren Nafarroako erregearekin zirenak? Nola deitzen dituzte testuan?
- Nor zen mauroen erregea?
- Nor dira aipatzen diren «jende txarrak»? Zergatik horrela deituak dira?
- Nolakoa zen Antso erregea?
- Zer zamalkatu zuen? Zergatik?
- Zer arma zuen?
- Nolako borroka izan zen?
- Nork egin zuen ihes?
- Nork irabazi zuen gudua?
- Irabazleak eskuak hutsik joan zirena handik?

15. orrialdeko testua:

- Zer harreman mota agertzen da testu honetan: harreman baketsuak ala guduzkoak?
- Nor zen orduko Nafarroako erregea?
- Nor zen orduko mauroen buruzagia? Non egoten zen? (Begira mapa batean non dagoen.)
- Zerk zituen elkarri hurbilarazi?
- Zein egunetan izenpetu zuten?
- Zer gertatu zen egun horretan?
- Itun horren bidez, bi erregeek zer hitzematen zioten elkarri?
- Mauroen erregeak zer eman behar zion urtero Nafarroako erregeari?
- Ordainez zer egin behar zuen Nafarroako erregeak mauroen erregearentzat?

- Talde bakoitzak bere testua bertze taldeari aurkezteko presta: antzerkitxo, marrazki, komiki, ipuin edo kontakizun baten bidez...

- Talde ttipitan prestatua talde handiari aurkez. Gerta daitezkeen galderei erantzun eta eztabaida.

- Talde handian bi lan horiek aurkeztu eta eztabaidatu ondoan, ondoriozta: Zer harreman mota zen nafarren eta mauroen artean? Bizpahiru erranaldiz idatz historiako kaierean.

NAFARROA ETA MUSULMANAK

OROIT

Goi Erdi Aroko Europan, sinesteak bazeuden. Jendeak bere sinesteak mitoetan aurkitzen zituen. Ondotik erlijioen garaia heldu zen: kristautasuna eta islama garatu ziren. Musulmanak Afrika iparraldetik sartu ziren 711n eta XV. menderaino Europa mendebaldean egon. Europako erresuma batzuk musulmanen kanporatzeko elkarretaratu ziren. Eten anitzekin sei mende iraun zuen gudu luze hori **Errekonkista** deitzen da. Gudaldi aipatuena 1212an gertatu zen, Las Navas de Tolosan. Antso Azkarrak gudu horretan parte hartu zuen. Artean eta noiztenka bake harremanak izaten ziren nafarren eta musulmanen artean.

EBALUAKETA

Ariketak:

- Azpimarra X. mendetik XII. menderaino Europan nagusitu ziren bi erlijioak:
hinduismoa – islama – kristautasuna – budismoa
- Nola bizi ziren erresumak? Erantzun egokia(k) ozka:
 - bake osoan beren artean.
 - etengabeko guduan.
 - batzuetan bakean, batzuetan guduan.
- Erdi Aroan musulmanek lurralde handiak bereganatu zituzten Europan mendebaldean. Europako erresumak batu ziren musulmanen aurka. Nola deitzen zen kristauen eta musulmanen arteko gudu luzea?

BISITAK

Orreagako monasterioaren eta elizaren bisita antolatu.

LAUGARREN KAPITULUA

Antolaketa soziala eta ekonomikoa

1. sekuentzia: **Hiriak Erdi Aroan**
2. sekuentzia: **Eguneroko bizia**
3. sekuentzia: **Gudariak / Gazteluak**
4. sekuentzia: **Monasterioak**
5. sekuentzia: **Ekonomia**

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. sekuentzia: Hiriak Erdi Aroan

Helburuak

- Hirigintza Erdi Aroan azkartuz joan zen. Fenomenoari ohartu.
- Erdi Aroko hirien egitura eta errealitatea ezagutu.

Metodologia gaitasunak

- Dokumentu ikonografikoen irakurtzen ikasi.
- Hiri mapa bat irakurri.
- Garai desberdinetako mapak erkatu.

Materiala

- Hiriak Erdi Aroan eta Baiona Erdi Aroan (fitxategiaren 16. eta 17. orrialdeak).
- Oraingo karrika bateko argazki bat.
- Oraingo Baionako mapa.
- Fitxategiko 34. orrialdea, ariketa fitxa.

Hitz gakoak

hiria – merkataritza – administrazioa – harresi – babesleku – ibai – ibaiadar

GEHIAGO JAKIN

Hirien garapena

Erdi Aroa migrazioen garaia da: baserritarrak gero eta gehiago hiritartzen dira. Ordu arte hiriak harresiz babestua ziren eta garatuaren bortxaz, harresietatik kanpo hedatzen hasten dira. Auzuneak sortzen dira eta gehienek garapen kontzentrikoa hartzen dute erdigune historiko baten inguruan. Erdigune horretan daude eraikuntza nagusiak: gaztelua, katedrala eta monasterioa.

Oraingo hiriei konparatuz, ordukoak arras neurri tipikoak ziren. Europako hiri guztiak kasik 20000 biztanlez petikakoak ziren. Parisek 100000 biztanle bazituen XII. mendean.

Nafarroako eta Euskal Herriko hiri nagusiak Iruñea, Lizarra, Tuter eta Baiona ziren. 7000 bat jende bazitezkeen Baionan XIV. mendean (ikus E. Goyheneche, 1990, *Bayonne et la région bayonnaise du XIII^{ème} au XVI^{ème} siècle*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua).

Iruñea

Iruñea Nafarroako hiriburu historikoa da. Euskal Herriko lur guzietara hedatuko zen erresumaren erdigunea bilakatu zen. Iruñea aldean, historiaurreko aztarnak ere badira. Hala ere, lehen datu fidagarria K.a. 75-74. urtekoa da: Pompeio erromatar armadaburuak bere tropek negua han iragan zezaten hautatu zuen herri hau. «Pompaelo» deitu zuten. Hiri erromatarra izan zen eta aztarnak arkeologia saileko indusketetan aurkitzen dira oraino. Germaniarrek hiria suntsitu zuten 275ean. Ondotik bisigodoek (VIII. mende arte) eta musulmanek (VIII. mendearen bukaera arte) hiria konkistatu nahi izan zuten. Errege frankoek, oso denbora laburrean bada ere, Iruñea menperatzea erdietsi zuten: Karlomagno Iruñeko harresiak suntsitu zituen (778). Iruñea Nafarroa Garaiko hiriburua da gaur egun.


Iturriak: www.puntubi.com eta www.es.geocities.com

1. sekuentzia: Hiriak Erdi Aroan

Troyes: Frantziako Champagne eskualdeko hiria. Parisetik 150 km-tan. Flandes-etik Italiako merkatu-bidean kokatua. XI. mendetik goiti garatu den Europa iparraldeko hiria. Troyes-eko merkatuak famatuak ziren Erdi Aroan.

XV. mendeko miniatura, garai bereko Froissart-en Kroniketatik hartua. Jean Froissart (1337-1404) historialari famatua da. Frantsesen eta ingelesen artean iragan zen Ehun Urteko Gerlaz, Froissart-ek lekukotasun, irakaspén eta argitasun anitz ekarri zuen bere Kroniketan. Valenciennes-en sortu gizon horrek Europa guzía kurrítu zuen eta bere kronikak lau liburutan idatzi. Europako miniaturista hoberenek ilustratu zituzten; haietarik dugu hiri bateko ohointzarena.

Garai haietan hiriek harresiz zainduak izan behar zuten lapurreta franko gertatzen baitzen. Gudari taldeak ebastera atrebitzen ziren. Hemen ageri da nola batzuk hiriaren defenditzera entseatzen diren eta besteak aldiz janari eta ontasun guzien eramatera.



Aturri ibaiaren aldean eraiki zen Baiona. Honela kokaturik, hiria salerosketako gune bilakatu zen garrantzia estrategikoa hartuz. Aturri ibaiak, itsasoak eta Errobi erreka geriza ere eskaintzen zioten.

Ontzibideak bazeuden barnealdeko lurraldetara buruz. Adibidez, Aturri gainean Landetara buruz 125 km-tan eta Euskal Herri barnealdera buruz Biduze ibaiadarrerraino; halaber Kanbo alde-
ra Errobi gainean.

Aturriren itsasoratzea guziz aldakorra izan da eta eragin handikoa hiriaren ekonomiarentzat. XII. mendetik XIV. menderaino, Capbreton-en itsasoratzen zen, Baionatik 18 km-tan; XV. mendean oraino gorago, Labriteko portuan (port d'Albret), 40 km-tan. Lehenik 3 km-tan hurbiltzen zen Baiona ondora eta gero iparraldera buruz urruntzen zen, Capbreton-eraino.


XVI. mendean (1578an), Louis de Foix ingeniariak kudeaturik, hasi ziren Aturri ibaiaren desbideratzeko lanak. Itsasoratzea Bokalen egin zuten. Baiona ez zen bakarrik itsas portua hasieran baina ibai portua. Erran behar da hemen eta non-nahi ubideek garrantzia handia zeukatela garraioentzat, lur-bideak baino hobeak baitziren garai haietan.

Baionak bere garapena portuaren inguruan segurtatu zuen. Alde batetik komertzio gune bat izan zen itsas trafikoa-ri esker: Baionatik iragaiten ziren haragia, arrantza, larrua, zituak, artilea... eta beste gauza anitz. Bestalde, Baionako ontziolak famatuak ziren; handik ontzi berriak egiten eta saltzen zituzten Frantzian, Espainian edo berdin Ingalaterran.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. sekuentzia: Hiriak Erdi Aroan

Baiona itsas eta ibai portua izanik, mapa honek hiriaren merkataritzako bide nagusiak erakusten dizkigu, bereziki itsaso aldetik.



Baionaren historia

Erromatarren garaian *Lapurdum* hiria garatu zen mendixka edo muino baten gainean, 1125 m²-ko eremuan, oraingo katedralaren aldean. Gerizatze leku egokia zen, alde batetik muino baten kaskoan zelakotz eta urez inguratua (Errobi, Aturri eta itsasoa). Ordu hartan, Akize baino hiri tipiagoa zen baino geroztik Landetako hiriari nagusitu zaio. *Lapurdi* lurraldea eta bere hiriburu horrela aipatuak dira IV. mende amaieran. 1023an, Lapurdiko bizkondea Iruñeko Errege Antso Nagusiak izendatu zuen.

1152an Alienor Akitaniakoa Ingalaterrako erregearekin ezkonduz geroz, hiru mendez ingelesez menpean egon zen eta garai horretan garapen ekonomiko handia ezagutu. Frantsesek Baiona bereganatu zuten 1451n. XIII. mendetik aitzina Nafarroarekin loturak azkartuz joan ziren ezen Nafarroak galdu zituen ordu arte zeuzkan itsas bazterreko lurak eta portuak (Gipuzkoan eta Bizkaian) eta itsas alderako bidearen beharretan zen merkatuaren segurtatzeko.

JARDUERAK

1. Hiriak Erdi Aroan (fitxategiaren 16. orrialdea)

Dokumentu horretan azaltzen diren bi irudi ikonografikoen irakurketa eginen da ikasleekin talde handian.

Bi dokumentuen jatorria erakutsiko da: lehena (Troyes hiria) gaurko irudikapena da eta bestea aldiz XV. mendeko miniatura.

- Miniaturari begiratzaz azpimarratuko da orduko marrazkilariek ez zutela gaur egun munduaz dugun ikuspegi bera eta marrazkeko teknika ez zutela orain bezainbat menperatzen (ikus lehen planoan diren lapurren neurria harresien aldean).
- Hirien funtzioak: merkataritza, administrazio eta babes leku.
- Talde tipitan, ikasleek 16. orrialdeko ariketak eginen dituzte eta ondotik talde osoari aurkeztuko.

- Non aurki ditzakegu gaur egun argamasez egin etxe hormak?
- Zertako dira atalburuetako ikurrak?

- Banakako lana: 16. orrialdeko dokumentu ikonografikoak oraingo hiri eta karrika baten argazkiekin konpara (oraingo dokumentuak entziklopedietan bilaturik) eta idazlan bat egin.

(segida hurrengo orrialdean)

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. sekuentzia: Hiriak Erdi Aroan


2. Baiona Erdi Aroan

- Talde tipitan Baionako mapa aztertu (fitxagegiaren 17. orrialdea).

- Zergatik ez zen Aturriren eta Errobiren bazter-bazterrean hiri zaharra?
- Iruñerako bidea asma ezazu plano horretan.

- Aurkezpena talde handian egingen da.

- Talde tipitan, ikasleek Erdi Aroko Baiona gaur egungo planoan kokatuko dute.



Baionaren oraingo mapa

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. sekuentzia : Hiriak Erdi Aroan

OROI

Gaur egun ezagutzen ditugun hiri anitz Erdi Aroan garatu ziren.

Hiriak merkatu leku eta herriaren kudeatzeko gune ziren. Erdi Aroan babesleku funtzioa ere betetzen zuten. Nafarroako erresumako hiri nagusiak Iruñea, Tuter eta Lizarra ziren.

Baiona ere hiri handia zen bere portuari esker. Ez zen Nafarroako erregeen eskumeneko baina merkataritzako harremanak bazituen Nafarroarekin.

EBALUAKETA

Fitxategiaren 34. orrialdeko ariketa-fitxa erabil.

- Zergatik hiri garrantzitsua zen Baiona?
- Zer izen dute Baionako ibaiak eta ibaiadarrak?

BIBLIOGRAFIA ETA BISITAK

- Lauburu-ren 3. dosierra
- Eugène Goyeneche, 1990, *Bayonne et la région bayonnaise du XIIème au XVème siècle*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua
- Baionako hiriaren bisita
- Baionako euskal erakustokiaren bisita.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

2. sekuentzia: Eguneroko bizia

Helburuak

Gertakari historikotik atera eta garai historiko bateko eguneroko biziaren lantzen saiatu.

Metodologia gaitasunak

- Dokumentu ikonografikoak irakurtzen eta deskribatzen ikasi.
- Testuen lantzen usatu.
- Hiztegiak erabili.
- Irudimena landu.

Materials

- Fitxategiaren 18., 19. eta 35. orrialdeak.
- Hiztegiak.
- Marrazteko materiala.

Hitz gakoak

jende xehea – lan tresnak – mozkinak – aurrerapen teknikoak – jopua

GEHIAGO JAKIN



Laborarien egoera

Jende xehe gehienak laborari ziren. Haietarik anitz jopuak, erran nahi baita jaunttoen meneko. Lur-lanak bortitzak eta dorpeak ziren laborientzat. Halere teknika berriak pixkanaka sartu ziren eta laborarien egoera hobetu zen. Burdinazko golde-nabarra baliatu zen gero eta gehiago; horrela ildo sakonagoak egin zitezkeen lurra gehiago harrotuz. Abereen espalda-uztarriak ordezkatu zuen ordura arte zen lepo-uztarria eta abere batek (behor edo zaldi) bi behiren lana egin zezakeen.


Mendiko emazte euskalduna.
Christophe Weiditz-en marrazkia (1529)

2. sekuentzia: Eguneroko bizia

Christophe Weiditz-ek jantzien deskribapen interesgarria ekartzen digu. 1529an Zambra izeneko mauren besta handiaren deskribapena egin zuen. Bestalde beste euskaldun pertsonaia batzuk ere marraztu zituen, hala nola mendiko emazte euskalduna edo gudari euskalduna (ikus Manex Goyhenetche, *Histoire générale du Pays basque*, 2. liburukia, eranskinak, 330. or.).



Iruñeko Biblian agertzen diren 871 marrazkietatik hartuak. Eguneroko biziko eszenak ilustratzen dituzte. Iruñeko Biblia Antso Azkararen garaian (XII. mendean) egin zen, bi aletan. Bat Frantziako Amiens-eko udaletxeko liburutegian dago.



Christophe Weiditz-en marrazkia (1529)



2. sekuentzia: Eguneroko bizia

Eguneroko biziaren irudikapena Iruñeko katedralean

Iruñeko katedrala estilo desberdinez egina da. XIV. mendeko eraikuntza gotikoa dela erran daiteke baina mendez-mende aldakuntza eta emendio asko egin zaizkio. Katedral gotikoa egin baino lehen, erran nahi baita XIV. mendea aitzin, bazegoen eraikin erromaniko bat. Jakin behar da Iruñeko katedralako Santa Mariaren taila (zurezko eskultura) erromanikoaren aitzinean zin egiten zutela Nafarroako erregeek.

Iruñeko Santa Maria katedralean, giltzarrietan ageri dira urteko laborantzako jarduera nagusiak. Lau taula: arno egitea, lur iraultzea eta hazi ereitea, gari biltzea eta laugarrena, zuhaitz argaltzea (fruitu arbola izan daiteke). Gisa bereko irudikapenak, XIII. mendekoak, aurki daitezke Amiens-eko katedralako erliebe batzuetan.

Aymeric Picaud-ren XII. mendeko lekukotasuna

Konpostelako beilari izan ondoren, Aymeric Picaud, Poitou eskualdeko elizgizonak, bideko gidaliburu bat argitaratu zuen, zeharkatu zituen eskualdeen eta jendeen berri emanez, bai eta beilarien pausaleku eta ibilbideena. XII. mendeko jende xehearen bizimoldeen deskribapena (jantziez, elikaduraz, etab.) ematen digu. Hala ere, Aymeric Picaud-k, euskaldunen irudi ezinago beltza, bortitza eta beldurgarria agertzen digu. Elizgizon hori orduko ideologiaz eta aurreiritziz itsutua bide zen.

Arras beste ikusmolde bat ematen digu, bizkitartean, Emmanuel Filhol unibertsitariak idazlan honetan: *La représentation du monde rural dans le guide du pèlerin de Saint-Jacques-De-Compostelle*, Université de Bordeaux 1, www.revues.org/cahiers-histoire.

JARDUERAK

- Fitxategiaren 18. orrialdean azaltzen diren Iruñeko katedralako pinturen deskribapena taldean landuko da eta urtaroeekin lotura eginen (etxean galdetuz...).
- Aymeric Picaud-ren testua talde handian irakurri eta landu ondoren, testuan aipu den pertsonaiaren marrazkia eginen da, deskribapenaz baliatuz.
- Testuaren azterketa: jantziak, elikadura, bizimoldea, etab.
- Testua irakurri ondoren, bereiz daitezke deskribapen soilari dagozkion erranaldiak eta interpretatzen dituenak.
- Fitxategiaren 19. orrialdeko *Janariak* testua bakarka irakurriko dute ikasleek eta ariketa idatziz eginen: Zer da gehienik aldatu egun guzietako elikaduran?
- Fitxategiaren 18. orrialdean itxuratua den lur iraultzea 19. orrialdeko irudiarekin erka eta aurrerapen teknikoaz gogoeta.
- Hurrengo orrialdeko testua (Erdi Aroko laborariaren deskribapena) talde tipitan irakur eta deskribapenaren araberako marrazkia egin; lanak arbelean afixa eta fitxategiaren 19. orrialdeko irudiarekin konpara.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

2. sekuentzia: Eguneroko bizia

Erdi Aroko laborariaren deskribapena (haurrekin lantzeko)

Bidean nindoala, laborari bat gurutzatu nuen, alorretik etxera itzultzen. Kopeta izertuak eta errautsez beltzarandu aurpegiak gogor lan egin zukeela salatzen zuten. Eskuetan ere, urte luzeetako indarren ondoriak ageri zitzaizkion, hain zituen lodi eta latzak.

Belaunak baino goraxeago heltzen zitzaion soineko bat zeraman, gerrian uhal batez tinkaturik, eta azken honek, denbora berean, igitai bat atxikitze ere balio zuen. Bizkarra eta sorbaldak soinekoaren luzetasun bereko soingaineko zabal batez estaliak zituen. Soingaineko edo kapa hura haizearen firfirak eta urratsaren zalutasunak arinki harrotzen eta dantzarazten zuten etengabeko mugimendu airos batean. Kapari loturik, buru estalki bat zeukan, apirileko haize bipilaz edo berdin abutzuko iguzki saminaz babestua izaiteko. Soinekoaren azpitik, galtza mehar batzuk ageri zitzaizkion, artile arruntezko galtzerdi lodien barnean sarturik. Oinetan abarkak zeramatzen, abere larru lodiz eginak, eta zangoen itzulia eginez belaunetaraino heltzen ziren uhal mehar batzuez atxikiak.

Eskuineko eskuan aitzurra zeukan, eta hau makila bezala baliatzen zuen orain, etxerako bidean bere urratsen sustengatzeko. Ezkerreko eskuaz adailua (korre) atxikitzen zuen, sorbaldaren gainean pausatutik. Tresna hau garia jotzeko baliatzen zuela azaldu zidan. Gider luze batez eta honi katez loturiko makila motz eta sendo batez osatua zen.

Ikas-eko Historia taldea

OROIT

Jende xehe gehienak nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi ziren. Laneko baldintzak arras gogorrak ziren. Laborarien bizimoldea eta zereginak urtaroei lotuak ziren.

Nekazaritzan aitzinamenduak gertatu ziren burdinazko golde-nabarrak gehiago baliatu zirelarik eta abereen uztartzeko moldea hobetzean.

EBALUAKETA

Fitxategiaren 18. orrialdeko ariketak erabil.

- Zertarik bizi zen jende xehea?
- Zer izan ziren aitzinamenduak laborantzan?

Fitxategiko 35. orrialdeko ariketa-fitxa egin.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

3. sekuentzia: Gudariak/gazteluak

Helburuak

- Erdi Aroan klase sozialak bazirela (zaldunak eta gazteluzainak, besteak beste) gogoan hartu.
- Horiek erregimen feudalaren oinarrian zirela ohartu.
- Laborari anitzen eta bereziki jopuen mendetasuna ulertu.

Metodologia gaitasunak

- Dokumentu ikonografikoak irakurtzen eta deskribatzen ikasi.
- Testuen lantzen usatu.
- Hiztegiak erabili.
- Irudimena landu.

Materiala

- Fitxategiaren 20., 21., eta 36. orrialdeak.
- Internet.

Hitz gakoak

gaztelua – gazteluzaina – jauregia – zaldunak – gudua – gudarostea/armada

GEHIAGO JAKIN

Erregimen feudala

Erregimen feudala Erdi Aroko jendartearen antolakuntzan hedatua zen Europa guzian. Erregimenaren oinarria lurralde baten jabe zen zalduna edo gudaria zen. Jaurerriak horrela sortu ziren. Jaunak jopuak edo laborariak bazituen bere meneko. Haren lurretan jende xeheek ez zeukaten askatasun eta eskubide handirik, harentzat lanean aritzea baizik. Baina mendeak iraganez bezala, jende zenbaitzuek (laborari, tratulari, eskulangile...) lur batzuetaz jabetu arau, eskubide batzuk erdietsi zituzten (infantzoiek Nafarroan). Hirietan ere, manera berean, burgesia sortuz eta handituz zoan eta denbora berean jaunen ahalak tipitu ziren. Bestalde, Europako erresuma anitzetan erregeen boterea azkartuz joan zen eta nobleena ahulduz. Feudalismoa emeki-emeki desagertu zen.

Feudalismoa Frantziako Morvan eskualdean

Karlomagoren erregealdiaren ondotik, goi funtzionarioak burujabetzaren erdiestera ahalegindu ziren, etxalde batzuk puskaka-puskaka berentzat hartuz, erregearen zerbitzatzera baldintza horretan bakarrik engaiatzen zirelarik. Feudaltatearen jatorria hala gertatu zela gauza jakina da.

Frantziako Karlos Burusoilak ordenu baten onartzeko ahulezia izan zuen 877an eta horri esker, lurjabegoa, errege kargu eta ofizioak ondorezkoak (belaunaldiz-belaunaldi transmitituak) bilakatu ziren. Ordenu horren ondotik, desantolaketa alde batekoa izan zen, pertsonaia horiek, beren artean, zegozkien graduen arabera hierarkia atxikitzen jarraitzen baitzuten. Horrela sortu ziren probintzia eta hirietako dukeak, markesak, kondeak eta baserrietako baroiak.

(segida hurrengo orrialdean)

3. sekuentzia: Gudariak/gazteluak

Feudalismoa Frantziako Morvan eskualdean (segida)

Normandiarren eta musulmanen aurka Erregea bezain ahalgabeak zirenez, 862ko ordenu batek erregearen basailuei agindu zien gotorlekuen edo gazteluen eraikitzea edo konpontzea, inbaditzaileen geldiarazteko.

Beraz, gotorleku horietako jaunek erresumaren zaintzen parte hartu zuten lehenik. Baina berantago, feudalismoa zapaltzaile bilakatu zen. Gainera, apezpiku, abade eta orokorki funts zerbaiten jabe izateko baimena zuten orok menpeko jauntxo saldo sortu zuten... kopuru hain handian non Morvan eskualdeko parroquia bakoitzean den gutienetik bat (eta berdin hamarretaraino) aurki baitzitekeen!

Orduan, gainerateko jendeak erabateko mendetasunean gertatu ziren eta beren nagusien legepean bizitzera behartu.

Honela, nobleek eta apezkek zinezko menpekoak ukan zituzten azkenean. Hauek **jopuak** deitzen ziren. Laborariak, bereziki, gisa batez esklabo bilakatu ziren. Jaurerriaren barnean aurkitzen zen guzia jaunarena zen: etxeak, herrixka, eihera, dolarea (brentsa), uztak, bideak, mendiak eta zelaiak, ihiziak eta arrainak, ugalketako etxe-abereak.

Hein guzietako basailuek beren nagusiari leialtasuna, laguntza militarra, zergak zor zizkieten, lanez edo diruz, nola gerta.

Laburbilduz, jopua, maila apalenean izanik, gazteluzainaren gauza zen, abere baten gisa. Lantzen zuen lur pezari estekaturik zegoen. Jauntxoek bere uzta guzia xintxika ziezaiokeen ihizaldi baten karietara. Edozein huts ttipi edo handirengatik jaunak preso ezar zezakeen edo berdin urkatua izatera kondena, neholako helegiteko aukerarik izan gabe.

Jauna hazten zuen jopuak, mantenua segurtatzen zion eta beharrez, haren gudarosteetan bortxaz sarturik, haren etsaien aurka defenditzen laguntzen zuen.

Iturria: www.morvan.com

Infantzoia zer zen

Erdi Aroan, Leon, Gaztela, Aragoi eta Nafarroan, pribilegio ekonomikoak zituen jendeak baziren eta hauetan beren luraren jabe ziren laborari franko. Titulurik ere izan zezaketen. Nafarroa Beherean, Baigorri eta Garazi aldean, *infantzoi* hitza etxe zenbaitetako atarian ageri da oraino. XII. mendean infantzoi hitza aipatua da errege-izkribuetan. Badakigu, adibidez, 1176an Antso Jakintsuak Forua eman ziela Los Arcos-ko biztanle, laborari, infantzoi eta frankoei. XVI. mendetik goiti, infantzoiak noble titulua lortzera saiatu ziren, bereziki Nafarroa Behe-



© Beñat Errecalde
rean.

«*infançon sortu niz infançon hilen niz*»
Baigorri- Hiriburuko atarian idatzia.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

3. sekuentzia: Gudariak/gazteluak

Ikurrak

Nafarroako erregeek Gaztelako Aragoiko eta Frantziako erret-odola bazuten beren leinuan eta gauza hori armarrietan adierazten zuten.

Lehoi koroduna eta jauregia: Gaztelakoa.

Zinta hori eta gorriak: Aragoikoa.

Zitoriak fondo urdinean banda gorri eta xuriak zeharkatuz: Frantziako Evreux familiarena.

Iturria: www.heraldique-europeenne.org

Heraldikaz bi hitz

Hatsarrean apaintzeko teknika zena gaur egun historia sailean lagungarri da. Heraldika armariaren zientzia ere deitzen da: armen eta zaldunen eginkizunen deskripzioa da.

Armarrien eta ezkutuen erabiltzeko, osatzeko eta azaltzeko arauak ikertzen ditu: halako armariak oinordetzako ohorezko ezaugarriak eta adierazleak direla ulertu behar da. Irudien eta koloreen konbinazioek osatzen dituzte, hauen bitartez jendeak, familiak, leinuak, etxeak, lurraldeak, korporazioak eta Estatuaren zein Elizaren erakundeak aise ezagut eta bereiz daitezkeela. Horretarako heraldikak hizkera berezi samarra erabiltzen du, gehienbat frantses jatorriko hitz zaharrek osatzen dutena.

Zientzia heraldikoak harreman estuak ditu historiaren beste zientzia laguntzaileekin, hala nola zigilografiarekin (agiriak balioesteko erabiltzen ziren zigiluak ikertzen dituen), genealogiarekin (familien nolabaiteko historia) eta zuzenbide nobiliarioarekin (tituluaren oinordetza sistema ikertzen duena).

Iturria: www.euskalnet.net

Erdi Aroko eraikuntzak

Gotorlekua: ongi babesturik dagoen leku edo barnea. Gotorlekuak lurralde baten babesteko eraikitzen ziren. Eraikin soilak, harresi zirkular edo karratuz egindako dorreak. Horien inguruan gazteluak eraiki ziren geroago.

Gaztelua: Harresiz eta defentsa askoz gerizaturiko eraikuntza gotorra.

Jauregia: eraikin handia; errege, printze edo goi mailako pertsona baten bizilekua.

Euskal Herriko gaztelu eta jauregiak

Euskal Herriko noblezia ez da aberatsa, ez eta ugaria: 10 baino jauregi gutiago Lapurdin, 50ez petik Zuberoan eta 150 bat etxe gotor Nafarroa Beherean.

Ezagunenetan aipa ditzagun:


- **Izurako Latsagako gaztelua.** Horko jaunak Pès de Latsaga-k, Luis IX.a, Santua Frantziako erregearekin eta Tibalt II.a Nafarroakoarekin parte hartu zuen zaspigarren gurutzadan (1248-1254). Gaztelua XIII. mendean hasi zuten eraikitzen.
- **Donazaharreko Harrietako gaztelua.**
- **Duzunaritzeko Apatia.** Horko alaba Nafarroako jauna zen Arno Gilen Agramontarrarekin ezkondu zen 1360ean.
- **Aiherrako Beltzuntzeko gaztelua.** Beltzunztarrek lau jauregi bazituzten Makean, Irurin, Mehainen eta garrantzitsuena Aiherran. Joan, Makeako bizkondea Beltzunztarra, Nafarroako erregearen aholkularia izan zen XVI. mendean. Gaur egun, Aiherrako gaztelua kasik barreiatua da baina haren berreraikitze xedea ba omen da.

(segida hurrengo orrialdean)

3. sekuentzia: Gudariak/gazteluak

Euskal Herriko gaztelu eta jauregiak (segida)

- **Amikuze-Uhartiriko gaztelua.** Horko jaunek zaspigarren gurutzadan (1248-54) parte hartu zuten. Orain den eraikina XVII.-XVIII. mendekoa da, dena berritua.
- **Baigorriko Etxauzea.** Etxauzeko bizkondeak Nafarroako erregearen basailuak ziren eta Aragoiko, Gaztelako eta mairuen aurkako guduetan parte hartu zuten. Oraingo eraikuntza XVI. mendekoa da baina XI. mendean jadaneko etxe gotor bat bazegoen toki berean.
- **Mauleko gaztelua.** 1257an Ingalaterraren esku gertatu zen gudaldi baten ondotik. Gazteluko bizkondea Raymond Guillaume V.a bere jauregia babestu nahiz hil zen gudaldi horretan. 1449an Foix-ko kondeak bi hilabeteko setio baten ondotik Frantziari eman zion Mauleko gaztelua.
- **Xabierko gaztelua.** Xabierko gaztelua Xabier udalerrian dago, Zangoza eskualdean, Nafarroa eta Aragoiren mugetan. Hasieran, X. mendean, dorre bat baizik ez zen. XIII. eta XIV. mendeetan, harresi eta eraikin gehiago egin zizkieten. XV. mendean, San Frantzisko Xabierrekoa fraile ezagunaren familiak bereganatu zuen. XVI. mendean apurtu zuten eta XIX. mendean berregin.
- **Amaiurko gaztelua.** Baztango ibarrean, Amaiur herrian. Nafarroaren konkista bukaeran, 1522an, Espainiako erregeordeak Amaiurko gaztelua setiatu zuen. Setio bortitza eta odoltsua izan zen eta azkenean, gaztelarrek gaztelua erre zuten eta Nafarroa erresumaren defendatzaile amaiurtarrak Iruñera preso eraman.




Martzillako jauregia. Nafarroan dago, Aragoi ibaiaren bazterrean. Ana de Velasco, gaztelu horretako andreak gazteluaren defentsa heroikoa egin zuen 1512an, Nafarroa konkistatzen ari zuten gaztelarren aurka.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

3. sekuentzia: Gudariak/gazteluak

JARDUERAK

1. *Nafarroako erregea armadaburu*: talde tipitan, zaldi gaineko mantei edo estalkiei artoski behatu ondoan, ikasleek armarren ikurrak paperean kopiatuko dituzte. Ondotik, talde handian parekatuko dute.
2. Entziklopedietan edo interneten ikertuko dute ikurrak zein etxetakoak (edo erresuma, leinu, familia) diren.
3. Erregeak dakartzan armarrak nolakoak dira? Zergatik dira hainbeste?
4. Zerrendatuak diren gazteluak Euskal Herriko mapan koka: Latsaga, Amaiur, Etxauz, Martzilla, Maule, Xabier, Beltzuntze.



Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea. Hurrek gazteluak mapa honetan kokatu behar dituzte.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

3. sekuentzia: Gudariak/gazteluak

OROIT

Gudua eta borroka erregeen eta jaunen zereginetarik ziren. Haiek zuten agintea eta beraz erresuma kudeatzen. Euskal Herriko jaunak eta zaldunak taldetan antolatuak ziren. Gaztelua zen jaunen bizilekua eta gazteluzaina lurralde baten jabe zen. Laborari zenbait jaunen jopuak ziren eta beraz arrunt haien meneko. Egoera latza jasaten zuten. Beste batzuk aldiz aske ziren eta abantailak bazituzten.

EBALUAKETA

Fitxategiko 36. orrialdeko ariketa-fitxa erabil.

BISITAK

Xabierko edo Mauleko gazteluen bisita antola.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

4. sekuentzia: Monasterioak

Helburuak

- Erdi Aroan monasterioek lurraldearen eta jendartearen antolaketan izan zuten garrantziari oharatu.
- Monasterioek kultur idatziaren garapenean zeukaten funtzioa ikusi.

Metodologia gaitasunak

- Dokumentuen irakurketan trebatu.
- Entziklopedien erabilera landu.
- Mapa baliatzen ikasi.

Materiala

- Fitxategiaren 22. eta 23. orrialdeak.
- Euskal Herriko mapa bat.
- Lur Entziklopedia tematikoa [Artea]: *Erromanikoa* 60. orrialdetik harat.

Hitz gakoak

monasterioa – fraidea – eskuizkribua – pergaminoa – kristautasuna

GEHIAGO JAKIN

Lehen monasterioak

Lehen fraideak (IV. eta V. mendeetan) bakartasunean bizi ziren oihanetan eta mendietan. Baina emeki-emeki elkartasunean bizitzeko xedea hartu zuten eta monasterioak sortu. Monasterioa fraide komunitatearen lanari eta jardueri zegozkien eraikin multzo bat zen. Monasterioak kristautasunarekin batean hedatu ziren Europa guzian, erran nahi baita V. mendetik harat (530. urtean Benoît Nursiakoak bere monasterioa sortu zuen eta barneko bizi arauak finkatu). Europa guzian hedatu zen lehen fraide ordena beneditarrena izan zen. Ondotik, XI. mendean, zistertarrak edo geroago domingotarrak eta frantziskotarrak.

Zer lan monasterioetan?

Fraide guzien helburua saindutasunari hurbiltzea da, obediencia, umiltasunaren, pobreziaren eta karitatearen baloreak beti hobetsiz. Otoitzean ari ziren baina lanean ere. Monasterioek beren eskumenean laborariak eta morroiak ere bazituzten. Batzuk lur eremu handien eta berdin herri osoen jabe ziren. Leireko monasterioak 58 herri beren lurrekin bazeuzkan. Orreagako monasterioak lurak bazituen Pirinioen bi aldeetan. Bestalde idazten ari ziren fraideak kopistak deitzen ziren, dokumentu anitz eskuizkribu ederrez kopiatzen baitzituzten pergaminoak baliatuz: testu sainduak bai eta literaturako testu zenbait ere.

4. sekuentzia: Monasterioak

Euskal Herriko monasterioak

Euskal Herrian eta bereziki hegoaldean monasterio anitz sortu zen Erdi Aroan. Nafarroa Garaian: Irantzuko monasterio zistertarra, Leireko monasterioa, Orreagakoa eta Iratxekoa dira ezagunetarik. Iparraldean: Lehuntzako monasterioa (premontretarrek eraikia XI. mendean), Irisarriko ospitalea (Jerusalemeko Jondoniren ordenak eraikia XII. mendean), Larzabale Utziateko priore-ospitalea... Donazarreko Premontre prioretxea, Garaziko San Bixente monasterioa, bai eta luzaz Leirekoaren meneko egon den Zaroko prioretxea.

Nafarroako prioretxeek eta monasterioek beste betekizunik ere bazuten: Konpostelako beilarien aterpetzea. Orreagako monasterioak, adibidez, garrantzia handia zeukan Erdi Aroan, Konpostelako bidean, halaber Urdazubikoak.

Leireko monasterioa

848an jadanik monasterio bat bazegoen Leiren. 928. urtean, Benoît-ren obedientziako San Birila izena zuen Leireko abadearen inguruan, leienda bat sortu zen. Leienda horrek ikonografia ere eman zuen.

X. mendera heltzean, musulmanen erasoak Pirinioetako mendietaraino heltzen ziren eta Leireko monasterioa desegin zen orduan.

XI. mendean, Leireko bastidak berrituak eta altxatuak izan ziren berriz, Nafarroako erregeen manuz. Ontasun franko eta lurralde handiak bere eskuetan zeuzkan, bereziki Nafarroa hegoaldean. Baina laster Leireko monasterioaren ahalak ahulduz joan ziren.

XIII. mendean, fraide beneditarrek (fraide beltzek) utzi eta zistertarrek (fraide xuriek) hartu zuten monasterioaren kudeaketa, gatazka luze eta gogorren ondotik.

XVI. mendetik harat, egoera latzean egon zen eta fraideak Leiretik lekutu ziren.

1954an, Burgos aldetik etorri fraide beneditarrek etorkizun berria eman diote berriz monasterioari.

Leireko monasterioak badu berezitasun eta indar sinboliko handia Nafarroako errege-erregina batzuen gorpuzkinak han baitaude, zurezko kutxa baten barnean begiratuak. Horra euskaraz transkribiturik kutxa aitzinean idatzia dena:

Hemen datzate Nafarroako lehen erregeen gorpuzkinak: Antso Gartzez (804-824), Jimeno Iñigez (824-836), Iñigo Arista (836-852), Gartzia II.a. Iñigez (860-882), Fortuno Gartzez (882-905), Antso Gartzez I.a (905-926), Gartzia Santxez III.a (926-970), Antso Gartzia II.a Abarka (970-994), Ramiro XIII.a (-991) eta Gartzia Santxez IV.a (994-999) bai eta ere Nafarroako zazpi erregeen gorpuzkinak.

San Birilaren leienda

San Birila, fraide aragoitarra, iduriz Leireko abade (monasterioaren buru) izan zen 928. urte irian. Leiendaren arabera behin batez xori baten kantua entzunik oihanera joan omen zen eta 300 urte han egon xori kantariari beha! Ondotik monasteriora itzuli zenean nehork ez zuen gehiago ezagutzen eta berak ere ez zuen nehor ezagutu. Ondotik Jaungoikoa agertu omen zitzaion zoriona xoriaren kantua baino handiagoa zela erranez. Gertaera hori zela eta, Leireko monasterioko fraideek saindutzat eman zuten. 1964tik hona haren erlikiak Iruñeko katedralean daude.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

4. sekuentzia: Monasterioak

JARDUERAK

- 22. orrialdeko ariketa egin: dokumentuko *Jakin* saila eta beheko irudia erkatuko ditugu eta ariketan azal-tzen den galderari erantzunen diogu. Lana talde handian egingen da; erantzuna idatziz, banaka.
- 23. orrialdeko dokumentuan azaltzen den ariketaren lehen galderari erantzuteko, Euskal Herriko monasterioen zerrenda egingen dugu. Horretarako entziklopediaz eta ikasleen ezagutzaz baliatuko gara. Ondoren monasterioak Euskal Herriko mapan kokatuko ditugu. Talde tipitan burutuko dugu lan hau eta ondotik talde handian aurkeztuko.
- Ariketaren bigarren galderari ihardetsi ondoren, emaitzak talde handian bilduko dira.

OROI

Monasterioetan fraideak bizi ziren. Fraideek kristautasuna hedatu zuten Euskal Herrian eta Europan gaindi. Eginkizunak otoitza, kantua, irakurtzea eta idazlanak zituzten, baina eskulanetan eta bereziki nekazaritzan ere ari ziren.

Monasterioak Konpostelako bidaiarien pausaleku ziren.

EBALUAKETA

Nor bizi zen monasterioetan?

Zer lan egiten zuten?

Nafarroako bi monasterioren izenak eman.

BISITAK

Orreagako monasterioa (XIII. mendekoa)

Leireko monasterioa (XI. mendekoa)

Iratxekoa (X. mendekoa) Lizarra ondoan.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

5. sekuentzia: Ekonomia

Helburuak

Nafarroako erresumaren ekonomiari interesatu.

Metodologia gaitasunak

- Mapa ekonomikoaren irakurtzen ikasi.
- Sareguneetan xerkatzen usatu.
- Hipotesien eraikitze gaitasuna.
- Taldean eztabaidatzeko gaitasuna (azalpena, argudioak...).

Materiala

- Fitxategiaren 24. orrialdea.
- Mapa itsua.
- Internet.

Hitz gakoak

ekonomia – nekazaritza – abeltzaintza – merkataritza

GEHIAGO JAKIN

Nekazaritza

Nekazaritza bi motatakoa zen, erliebearen eta klimaren eraginez:

- klima mediterraneo hegoaldean: Ebro ibaiaren inguruan lur emankorrak izanki eta, erromatarrek zitu, mahasti, eta fruitu ekoizpena sortu eta hedatu zuten.
- klima ozeanikoa iparraldeko mendialdean: han abere hazkuntza (urde, ardi eta behi) egiten zen.

Burdingintza

Ez zen laborantza Nafarroako ekonomiaren zutabe bakarra. Meategiak baziren, bereziki mendialdean, hala nola Baztan eta Bidasoa aldean.

Salerosketa

Erdi Aroko Nafarroaren ekonomiaren hirugarren atala salerosketan oinarritzen zen. Alabaina, itsasertz atlantikoaren eta mediterranearraren erdibideetan kokatzen da Nafarroa. Bestalde Europa iparraldearen eta penintsulako hegoaldearen arteko pasabidea zen. Bidegurutzean izateak merkataritza goizik sorrarazi zuen, bereziki Iruñeko hirian eta Ebro ibaiaren inguruan.

ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA

5. sekuentzia: Ekonomia

Nafarroa eta itsas portuak

Erdi Aro hasieran Nafarroak leiho bat bazeukan itsasertz atlantikora buruz: abantaila handia itsas komertzioaren garatzeko Frantziako, Galiziako, Flandes-eko eta berdin Ingalaterrako portuekin. Bizkitartean, Gaztelako Alfontso VI.ak Errioxa, Bureba, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bereganatu zituen 1076an eta Nafarroako erresuma itsas porturik gabe gelditu zen.

Iturria: www.puntubi.com

JARDUERAK

Fitxategiaren 24. orrialdeko *Jakin* saila irakur, taldean edo bakarka. Ondotik, ikasleek mapa ekonomikoa talde ttipitan aztertuko dute.

- Zein ziren jendeen bizipide nagusiak?
- Zer lekutan kokatzen da bizipide bakoitza?
- Portuak zertako behar zituen Nafarroako erresumak?

Talde bakoitzak galdeen ihardespena eta mapa ekonomikoaren interpretazioa talde handian emanen ditu, hipotesiak eta argudioak azalduz.

Historia saileko sareguneetan iker nafar erregeek ekonomiaren bultzatzeko eta lurraldeen jendeztatzeko hartu neurriak. Neurri horiek denak idatz eta bilduma elkarrekin egin.

OROI

Nekazaritza eta abeltzaintza ziren ekonomiaren oinarriak. Abeltzaintza nagusi zen mendialdean, nekazaritza aldiz zelaian, Ebro ibaiaren inguruko lur aberatsetan. Burdingintza ere bazen iparraldeko mendietan. Merkataritza garatu zen hirietan. Itsas portuek garrantzia hartu zuten eta Nafarroari komertzio bideak zabaltu zitzaizkion Europa guzira buruz.

XI. mendean, portu atlantikoak (Hondarribia, Donostia, Getaria...) galdu zituen Nafarroako erresumak.

5. sekuentzia: Ekonomia

EBALUAKETA

Ikasleek landu duten mapa ekonomikoa berriz har. Mapa mutu batean, hiri, portu eta beste ezar.

- Zein ziren Nafarroaren portuak Erdi Aroan?
- Non zituen Nafarroak nekazaritzako lur aberatsak?



BOSGARREN KAPITULUA

Konpostela

1. sekuentzia: **Konpostelako beilariak**
2. sekuentzia: **Konpostelako bideak**

KONPOSTELA

1. sekuentzia: Konpostelako beilariak

Helburuak

- Garai horretan erlijioek hartu zuten garrantzia ulertu.
- Konpostelako beilaren ekarpen sozialari eta ekonomikoari ohartu.

Metodologia gaitasunak

- Testu baten zehazki aztertzen ikasi.
- «Horma pintura» bati begiratu eta ikertu.
- Hiztegia erabili.

Materiala

- Fitxategiaren 25. orrialdea.
- Hiztegia.

Hitz gakoak

beila – beilari – erromes – gorpuzkin

GEHIAGO JAKIN

Beilari bikotea, Florentziako horma pinturan (fitxategiaren 25. orrialdea)

Italia Toskana eskualdeko hiriburua Florentzia da. XIII. eta XIV. mendeetan, garrantzia ekonomiko handia hartu zuen ibai-portu eta merkataritza zentro gisa. BERPIZKUNDE garaian Europako hiri nagusi artistiko bilakatu zen, Giotto eta Michelangelo izan zirelarik margolari famatuak.

Itxura guzien arabera, obra hau BERPIZKUNDE garaikoa da eta Giotto-ren eskola artistikoaren eragina dauka. Giotto mendebaldeko pintura modernoaren sortzaileetarik izan zen XIV. mendean.

Beilarien deskribapena

Hastapenean jantzi berezirik ez zuten beilariak baina emeki-emeki beztitzeko molde bat nagusitu zen eta beilarien ezaugarri bilakatu. Ospitaleetan ibiltzeko eskubidea eta bertze fededunen laguntzaren gozatzeko bidea eman zizkien horrek.

Beilariak *kota* deitzen zen zaia zerabilen gerrian tinke. Bestalde, aitzinean idekia zen kaputxadun gaineko bat zeukan. XV. mendean, kaputxaren lepoa zabalago zen eta kapa gisako zerbaite bilakatu zen: pelerina. Gizonek euritik eta eguzkitik gerizatzen zituen feltrozko xapel zabala zeramaten. Emazteek espaldetarainoko buru-oihala bazuten. Espartinak edo zapata itzedunak zeuzkaten oinetan baina beilari batzuk (edo gehienak?) ortutsik zebiltzan.

Gaineratekoan, beilariak bi lagungarri bazituzten: espaldan zeramaten *alportxa* izeneko larruzko zorro edo zakua eta pordoia edo beilari-makila, bestalde. Bi metroko haga zen, nonbait han. Makilak bi oxka zeuzkan esku giderrean. Horietan estekatzen zen xahakoa. Kuia edo kalabazaren formako larruzko zakua zen xahakoa. Horretan ezartzen zuten ospitale batzuetan eskaini arno soberakina. Makila akituak zirenean baliatzen zuten bai eta, beharrez, gaiztagin eta animalien erasoetatik begiratzeko.

Iturria: www.ac-toulouse.fr/culture (Geneviève Joutard eta Danielle Montariol)

KONPOSTELA

1. sekuentzia: Konpostelako beilariak

Jondoni Jakobe nor zen?

Zebédée eta Marie Saloméren seme, Joanes Ebanjeliogilearen anaia, Santiago, «Nagusia» izengoitiko, Jesusen apostolua, dizipulu zaharrenetarik eta hurbilenetarik izan da. Ekialdetik jin omen zen Galiziako Iria Flavia-ra. Espainian ebanjelioa hedatu ondoren, Jerusalemera itzuli omen zen berriz. Han, burua moztu zioten, Herode Agrippa II.a erregearen aginduz, kristauen kontrako lehen erasoak izan zirenean, Kristo ondoko 41.-43. urte irian. Bi dizipuluek haren gorputza barku batean ezarri omen zuten, eta ontzia, aingeru batek gidaturik, Iria Flavia-ra itzuli omen zen... Apostoluaren gorputza Galiziako erromatar hilerri ohi batean ezarria omen zuten... eta han ahanzi zen.

813an, Pélagé deitu ermita, mirakuluzko izar batek gidaturik, Santiagoren hil hobira heldu omen zen. Hain zuzen, Konpostela izenak "*konpostum*" (hilerria) latin erroa du. Gertakari hori jakin zuenean, Alfontso II.ak hiru eliza eraikiarazi zituen han. Orduko politika egoera kristauen eta musulmanen arteko etengabeko gatazka zen, denak oraingo eremuko Espainiaz jabetu nahiz. Testuinguru horretan, Santiago Espainia kristauaren ezaugarri bilakatu zen berehala. 844an, musulmanen eta kristauen arteko Clavijo-ko gudua izan zen: Santiago saildua zaldun itxuran agertu omen zen eta garaipena erdietsi. Fedegabeen kontrako «matamoroa» edo mairu-erailea bilakatu zen orduan.

1161 irian, Santiagoko fraideen anaidia sortu zen, sailduaren ospea eta zaldungoaren ideala batzeko xedearekin. Mendez-mendez, Santiagoren debozioa zabandu zen Espainian, Erdi Aroan kristau mundu guzira hedatu zena. Santiagoko beilaren arrakasta ahuldu zen X. mendean, bideetan gertatzen ziren mauro erasoengatik. XI. eta XII. mendeetako Errekonkistak indarberriturik, jende oste handiak abiatu ziren berriz beilari, Konpostelara.

Iturria: www.ac-toulouse.fr/culture (Geneviève Joutard et Danielle Montariol)

Beste beila batzuk

Konpostelako beila aipatzen da baina lekuko beste beila batzuk ere iker daitezke.

San Antoniko beila, adibidez, Ozkaxe aldeko mendi tontor batean, Nafarroa Behereko eta Zuberoa artean den mendi kaperan, oztibartarrek, amikuztarrek eta zuberotarrek ongi ezagutzen duten beila da. Jakin dezagun kapera hori Nafarroako Karlos Gaiztoak 1385ean eginarazi zuela bakea finkatu nahiz lukuztiar eta agramondarren gatazka luze eta odoltsua geldiarazteko. Erran behar da tregoa ez zuela luzaz iraun.

JARDUERAK

- Aitzineko kapituluaren edukia gogoraz galderak eginez:

- Zer zen aitzineko kapituluaren gaia? (herriaren antolaketa eta jendeen bizimoldea)
- Zerez oroitzarazte? (hiru jende mota baziren: lan egiten zutenak, otoitz egiten zutenak eta gudua egiten zutenak)
- Jende gehienek erlijioa zein zen? (Kristau erlijioa)

- 25. orrialdeko Jakin saila: Konpostelaz egina den idazkia ulertu.

Haurrak hiru taldetan bana. Talde bakoitzak testuko pasarte bat ikertuko du, gero bere ikerketaren ondorioa talde handiari aurkezteko.

(segida hurrengo orrialdean)

KONPOSTELA

1. sekuentzia: Konpostelako beilariak

Lehen lerroaldiaren aztertzen laguntzeko:

- *Nor aipatzen da testu honetan?*
- *Zer dira gorpuzkinak? Zuen ustez, nola osatua da hitz hori eta zer erran nahi du?*
- *Zein mendetan "aurkitu" ziren Santiagoren gorpuzkinak? Non?*

Lana elkarretaratuko denean, gidaliburuan den *Jondoni Jakobe* nor zen? testua irakur edo konta eta fitxategiaren 25. orrialde beheko irudiari so egin: XVII. mendean Jean Caliot-ek marrazturiko Jondoni Jakobe.

- *Segur gara hor aipatzen direnak egiazki gertatu direla? Zein hitzek ulertarazten digu?*
- *Santiagoko bidea zer da?*
- *Nola deitzen da bestalde bide hori?*

Bigarren lerroaldiaren aztertzen laguntzeko:

- *Nondik heldu ziren erromesak edo bidaiariak?*
- *Zein hitzek adierazten digu zenbat ziren?*
- *Zein izan zen mugimendu horren ondorioa herri eta hirietan?*
- *Merkataritza zer da? Eta ostalaritza? (Beharrez, hiztegian bila ezazue. Begira hitz horiek nola osatuak diren).*
- *Zuen ustez, zergatik herri eta hiri horiek merkataritza eta ostalaritza azkartu ziren?*

Hirugarren lerroaldiaren aztertzen laguntzeko:

- *Konpostelako bide guzi hori gelditu gabe egiten zutena erromesek?*
- *Zein lekutan gelditzen ziren?*
- *Zuen ustez Konpostelako bideko ospitaleek eta gaur egun ezagutzen ditugun ospitaleek eginbide bera dutea?*
- *Erromesek bidaia lasaia egiten zutena? Testuak zer dio horretaz?*

Talde bakoitzak, testu zati bat ozenki irakurri ondoan, azterketaren berri emanen dio talde handiari.

Bi galdera hauek egiten zaizkio talde osoari:

- *Zer erlijio zuen Jondoni Jakobek?*
- *Zer erlijio zuten Konpostelako beilariak?*

Erromesen «horma pintura»-ri begira (ikus fitxategiaren 25. orrialdean) elkarrekin talde handian. Ikusten dena xeheki azaltzeko, gidaliburuko testua balia (beilarien deskribapena). Talde handian, testua bizpahiru esalditan laburbil.

KONPOSTELA

2. sekuentzia: Konpostelako bideak

Helburuak

- Konpostelako bideak mapa geografikoan koka.
- Hiri eta herri batzuen ezagutza eta kokapena segurta.

Metodologia gaitasunak

- Mapa baten irakurtzen eta ikertzen ikasi.
- Hiztegia baliatu.

Materials

- Konpostelako bideak: fitxategiaren 26. eta 37. orrialdeak.
- Hiztegia.

Hitz gakoak


Konpostelako bideak – Izura – Ibañeta – Gares – Leire

GEHIAGO JAKIN

Beila-bideak Euskal Herrian gaindi

Euskal Herria Konpostelako bideen elkargunea izan da dudarik gabe: Europa iparraldeko beilari gehienak hemen-dik iragaiten ziren. Fenomeno honek anitz ekarri die gure lurraldeei. Badakigu beilak sekulako arrakasta hartu zuela Europako mendebaldeko erresuma guzietan XI. mendetik aitzina. Beilariak pausaldiak egin behar zituzten hogeita hamar kilometro guziz. Babeslekuak ere behar zituzten bideak segurrak ez zirelako. Beraz aterpeak, ostatuak, eta zerbitzu franko sortu ziren han-hemenka, beilariantzat, monasterioetan bereziki, baina ez bakarrik, ezen bide bazterretan ere aurki zitezkeen. Bestalde, Konpostelako bideek edergintzan, alor teknikoan eta intelektualean ere anitz ekarri digute.

Ibilbideei begiratuaz ohartzen gara Frantzia iparraldetik zetozen lau bide nagusi Euskal Herritik iragaiten zirela: bata itsasaldekoa eta beste hiruak, barnealdekoak, Izuran (Nafarroa Beherean) elkartzen ziren. Beste elkargune garrantzitsurik ere bazen Nafarroa Garaian, Gares herrian, Iruñearen hegoaldean (Puente de la Reina erdaraz). Garesen badago Santiago eliza (XII. mendekoa) eta harrizko zubi erro-manikoa (XI. mendekoa).



Beila-bideak Euskal Herrian gaindi

Euskal Herria Konpostelako bideen elkargunea izan da dudarik gabe: Europa iparraldeko beilari gehienak hemen-dik iragaiten ziren. Fenomeno honek anitz ekarri die gure lurraldeei. Badakigu beilak sekulako arrakasta hartu zuela Europako mendebaldeko erresuma guzietan XI. mendetik aitzina. Beilariak pausaldiak egin behar zituzten hogeita hamar kilometro guziz. Babeslekuak ere behar zituzten bideak segurrak ez zirelako. Beraz aterpeak, ostatuak, eta zerbitzu franko sortu ziren han-hemenka, beilariantzat, monasterioetan bereziki, baina ez bakarrik, ezen bide bazterretan ere aurki zitezkeen. Bestalde, Konpostelako bideek edergintzan, alor teknikoan eta intelektualean ere anitz ekarri digute.

Ibilbideei begiratuaz ohartzen gara Frantzia iparraldetik zetozen lau bide nagusi Euskal Herritik iragaiten zirela: bata itsasaldekoa eta beste hiruak, barnealdekoak, Izuran (Nafarroa Beherean) elkartzen ziren. Beste elkargune garrantzitsurik ere bazen Nafarroa Garaian, Gares herrian, Iruñearen hegoaldean (Puente de la Reina erdaraz). Garesen badago Santiago eliza (XII. mendekoa) eta harrizko zubi erro-manikoa (XI. mendekoa).

Beila-bideak Euskal Herrian gaindi

Euskal Herria Konpostelako bideen elkargunea izan da dudarik gabe: Europa iparraldeko beilari gehienak hemen-dik iragaiten ziren. Fenomeno honek anitz ekarri die gure lurraldeei. Badakigu beilak sekulako arrakasta hartu zuela Europako mendebaldeko erresuma guzietan XI. mendetik aitzina. Beilariak pausaldiak egin behar zituzten hogeita hamar kilometro guziz. Babeslekuak ere behar zituzten bideak segurrak ez zirelako. Beraz aterpeak, ostatuak, eta zerbitzu franko sortu ziren han-hemenka, beilariantzat, monasterioetan bereziki, baina ez bakarrik, ezen bide bazterretan ere aurki zitezkeen. Bestalde, Konpostelako bideek edergintzan, alor teknikoan eta intelektualean ere anitz ekarri digute.

Ibilbideei begiratuaz ohartzen gara Frantzia iparraldetik zetozen lau bide nagusi Euskal Herritik iragaiten zirela: bata itsasaldekoa eta beste hiruak, barnealdekoak, Izuran (Nafarroa Beherean) elkartzen ziren. Beste elkargune garrantzitsurik ere bazen Nafarroa Garaian, Gares herrian, Iruñearen hegoaldean (Puente de la Reina erdaraz). Garesen badago Santiago eliza (XII. mendekoa) eta harrizko zubi erro-manikoa (XI. mendekoa).

KONPOSTELA

2. sekuentzia: Konpostelako bideak

Orreagako ospitalea




Iduri luke Gilermo Iruñeko apezpikuak (1116-1122) sortu zuela Orreagako Santa Maria ospitalea. Monasterioak garrantzia handia hartu zuen Erdi Aroan, Konpostelako bideari esker. XIII. mendean handitu eta hedatu zen. Han dago, Frantzia iparraldeko estiloaren eragin handia duen Santa Mariaren kolegiata gotikoa (XII. mendekoa). Antso Azkarra nafar erregearen hilobia han ikus daiteke.

Ibañetako lepoan (1057 metroko goratasunean) monasterio bat ere bazegoen, orain kapera bat baizik ez delarik. Nafarroako erregearen meneko egon ondoren, Leireko monasterioak bereganatu zuen. Gaur egun suntsitua da (ikus José Luis Orella, *Konpostelako bideak Euskal Herrian barrena*, Mensajero).

Ibañetako oraingo kapera

Donibane-Garazitik Orreagara 22 km oinez



KONPOSTELA

2. sekuentzia: Konpostelako bideak

JARDUERAK

- Konpostelako bideak fitxategiaren 26. orrialdean, bi mapa badira. Ikerketa lana talde tipitan.

Gainaldeko ezker aldeko mapa:

- *Nongo mapa da?*
- *Zein dira idatziak diren hiriak? Nongoak dira?*
- *Euskal Herria non kokatzen duzu?*
- *Zenbat bide datoz iparraldetik?*
- *Nondik dator Tolosatik pasatzen den bidea?*

Behereko mapa:

- *Nongo mapa da?*
- *Zenbat bide nagusi agertzen dira hor?*
- *Itsasaldeko bidea zein hiritatik iragaiten da? Zein lurralde zeharkatzen du?*
- *Zein dira bertze bidean ageri diren herri izenak?*
- *Bide hori nola dei dezakegu?*
- *Iparraldetik heldu diren bideek ba dutea elkargunerik Ipar Euskal Herrian? Non?*
- *Eta Hego Euskal Herrian? Non?*

- Fitxategiaren 37. orrialdean ariketa-fitxako bigarren ariketa binaka egin eta, talde handian zuzenduko da, beharrez paretako mapaz edo fitxategiko 26. orrialdeko mapaz baliatuz.
- Fitxategiaren 37. orrialdea, ariketa-fitxako azken ariketa.
- Kapitulu honetako «Beila-bideak Euskal Herrian gaindi» pasartea har. Ikasleei irakur eta ideia nagusiak bizpahiru erranaldiz idatz ditzaten galdegin. Proposamenak elkarretara. Denen arteko sintesia idatziko du ikasle bakoitzak bere kaieran.
- Ikasleei galdegin beren inguruan Konpostelako bideko ospitale, monasterio edo kapera bati buruzko informazioa, argazkiak eta abar bila ditzaten. Klasera ekartzen dituzten euskarri eta informazioak talde handiari aurkez eta menturaz gelan afixa.

KONPOSTELA

OROIT

Galizian, IX. mendean, Jondoni Jakobe (Santiago) apostoluaren gorpuzkinak aurkitu omen ziren. Geroztik, Europa guztitik kristau beilariak hasi ziren Galiziako Konpostelara oinez joaiten. Ibilbide hori *Santiagoko*, *Konpostelako* edo *jakobe* bidea deitu zuten.

Bi bide nagusi pasatzen ziren Euskal Herritik. Ondorioz, bide horietako herri eta hiriak handitu eta indartu ziren ostalaritza eta merkataritza gunen bilakatuz.

EBALUAKETA

Noiz sortu zen Konpostelako beila?

Nor zen Jondoni Jakobe edo Santiago?

Nola deitzen dira Konpostelako bideetan dabiltzan jendeak?

Zenbat bide nagusi pasatzen ziren Euskal Herritik?

Zer ondorio izan zuten Konpostelako bideek Euskal Herriarentzat?

BIBLIOGRAFIA ETA BISITAK

Konpostelako bide zati batean oinez ibil erromesen gisara.

SEIGARREN KAPITULUA

Nafarroako erresuma eta euskara

NAFARROAKO ERRESUMA ETA EUSKARA

Nafarroako erresuma eta euskara

Helburuak

- Dokumentu ikerlanak bultzatu.
- Nafarroan erabiltzen ziren hizkuntzak (gortean eta herrian) gaur erabiltzen direnekin erkatu, eta hizkuntzen bilakaerari ohartu.

Metodologia gaitasunak

- Dokumentuen aztertzen ikasi.
- Mapak erabili.
- Erkatzen eta ondorioztatzen usatu.

Materiala

- Nafarroako erresuma eta euskara (fitxategiaren 27. orrialdea).
- Euskara eta beste hizkuntzak Erdi Aroko Nafarroan (Joseba Intxausti, *Euskara euskaldunon hizkuntza*, Eusko jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia, eta gidaliburu honetako 62. orrialdeko mapa).
- Euskararen egoera gaur egun Nafarroan.

Hitz gakoak

latina – nafar-erromantzea (nafar erromanikoa) – errege administrazioa – agiria

GEHIAGO JAKIN


Non mintzo zen euskara?

Erdi Aroko toponimiaren arabera, Nafarroako iparraldeko eta erdialdeko bazter guzietan euskarazko izenak milaka agertzen dira. Nafarren jatorrizko hizkuntza euskara zela erran daiteke beraz. Baina euskararen mintza eremua Erdi Aroko zatigibelatzen hasia zen eta mapak erakusten digun bezala, Nafarroa hegoaldean ez zen gehiago euskara mintzatzen; nafar-erromantzeak hartua zion gaina.

Tafalla aldetik iparraldera buruz euskara zen herri hizkuntza salbu hirietan, burguetan eta monasterioetan, okzitaniera edo nafar-erromantzea baliatzen baitzen. Idazki ofizialetan ere hala gertatzen zen, adibidez Nafarroako artxibotegi nagusian, 80000 ageri nafar-erromantzez dira idatziak eta 3000 okzitanieraz; euskaraz, aldiz, arras guti. Erran daiteke beraz euskara administrazio zereginetarik kanpo zela.

NAFARROAKO ERRESUMA ETA EUSKARA

Nafarroako erresuma eta euskara



Euskara eta beste hizkuntzak Erdi Aroko Nafarroan. Zenbakiak herriko eta herri inguruko jendetza adierazten dute. Juduen eta mairuen egonguneak agertzen dira. Hizkuntzen eskualdeak ere hor ditugu (euskara / nafar-erromanikoa* / arabiera).

Iturria: Joseba Intxausti, *Euskara euskaldunon hizkuntza*, Eusko jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia.

*nafar-erromantzea

Euskara eta erromantzeak

Duela bi mila urte euskara bazen, euskal hiztunak baziren, gaur egun bezalaxe, Pirinioen inguruan. Penintsulan galieraz mintzatzen ziren iparraldean, zeltiberieraz hego-mendebaldean, eta iberieraz hego-ekialdean. Hobeki erran, hizkuntza horietan idazten zuten. Baina erromatarrek latina ekarri zuten, beste hainbat gauzaren artean. Urteak aurrera joanez bezala egoera aldatu egin zen. «Ondorio bat argi dago: latinak beste hizkuntza zahar guztiak, euskara izan ezik, desagerrarazi zituen. Haien orde, latina eta geroko erromantzeak geratu ziren. Baina harrigarriena da latinak ez zuela euskara desagerrarazi, eta Europa osoan antzeko beste kasu bakar bat dago, galeserarena.», azaldu du Joaquín Gorrotxategi hizkuntzalariak [...]

Baina I. mende hartan euskara gaur egungo lurralde berean ote zegoen? Lurralde zabalagoan inondik ere. Alabaina, egun euskalduntzat jotzen diren mendebaldeko lurraldeetan ez dago guztiz argi euskara zaharra bazenik.

Beti Gorrotxategiren arabera, «Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian gauzak ez daude hain garbi. Antzinako informazioa murrizta izateaz gain, euskalduntasuna ez da batere argi ikusten. Anitzek argi dago ageri da ekialdera, ipar-ekialdera gehien bat. Erromatarrek Akitania deitu zuten hartan argi dago euskaraz aritzen zirela, euskararen aitzindari zen hizkuntzan. Pirinioak, Garona eta itsasoaren artean, Nafarroan, Baskoien eremuan ere euskaraz egiten zen, nahiz eta gauzak nahasiago agertzen diren. Toki, pertsona eta jainko izenak badaude, batzuk euskaraz uler daitezke, beste batzuk ez dira euskaldunak, eta beste batzuk ilunak dira. Hamar mende beranduago, prozesu konplexuen ondorioz, ageri falta dela eta gutxi gorabeherako gaur egungo mapa ageri da.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia euskaldunak dira, dudarik gabe. Hango euskara zaharra da ala ez? Latinaren maileguak erabiliz, pentsa daiteke probintzia horietan aurretik ere euskara zaharra egiten zela.» [...]

Erromatar inperioa erori zenean, eta bisigodoak Toledon ezarrita, Euskal Herriak ia askatasun osoa izan zuen. Politikoki urte ilunak dira, baina garbi dago inportanteak direla hizkuntzaren finkapenerako. Euskarak seguraski, hedadura eta zabalpena izan zuen urte haietan.

Erromantzeak

Baina pixkanaka, latina indarra galduz joan ahala, haren seme-alabak jaio ziren. Euskararen eremuaren inguruan jaio ere. Horrela gaztelera, errioxera, nafar-erromantzea, aragoiera eta gaskoiera agertu ziren ondoko mendeetan. Noiz? Ramon Santiago hizkuntzalari adituak ez du erantzun zehatzik galdera horretarako: «Ezin da zehaztu jatorria, ez garaia, ez tokiak. Pixkanaka hedatu den prozesua da, latina ahultzen joan ahala indartzen joaiten dira erromantzeak.[...]»


Orduko erromantzeek elkarren antz handia zuten eta Europa osoa zeharka zezakeen erromantzez mintzatzen zen pertsona batek ulertzeko arazo handirik gabe» Santiagoren erranetan. Euskararen eremuaren inguruan sortu ziren erromantzeen kasuan, hizkuntza zaha-rraren eragina handia izan zen, gaztelera eta gaskoieraren kasuan batez ere.[...] Baliteke, gainera, garai hartan ere hizkuntzen arteko funtzio banaketa izatea. Euskara etxeko, lagunarteko hizkuntza izango zen, ahozkoa gehien bat. Erromantzeak berriz, idatzikoak, administrazioarenak. «Badaude kontseilu eta batzarreak euskara erabili zutenak. Baina ez zen ohikoa. Administrazioa, normalean, erromantzez jarduten zen» zioen Ramon Santiagok.

Íñaki Petxarroman kazetariak 2003ko uztailaren 13an, Aramaion hizkuntzei buruzko ikastaroaren ondotik egin artikulua.

Nafarroako erresuma eta euskara



Euskararen gaurko egoera
Nafarroa Garaian



Eskemaren egilea : Ikas

NAFARROAKO ERRESUMA ETA EUSKARA

Nafarroako erresuma eta euskara

JARDUERAK

Nafarroako erresuma eta euskara: fitxategiaren 27. orrialdean iker.

- Ikasleak talde ttipitan ezar. 27. orrialdeko dokumentuak landuko dituzte.

Euskara erregeen gortean eta eskuizkribuaren argazkia.

- Eskuz idatzia den lehen dokumentua noizkoa da?
- Zer dokumentu mota da?
- Zer hizkuntzatan idatzia da?
- Nork idatzi zuen?
- Nori igorri zion?
- Zer lanbide zuten idazleak eta eskuratzailak?

Nafar-erromantzea testua eta haren ondoko argazkia.

- Noizkoa da argazki horretako testua?
- Zeren testua da?
- Zer hizkuntzatan idatzia izan da?
- Hizkuntza hori erabili aitzin zer hizkuntzatan idazten zituzten erresumako agiriak?

Lingua Navarrorum.

- Nork idatzia du testu hau?
- Noiz idatzia izan da?
- Nafarroako gortean beti hizkuntza bera erabili dutea administrazioan eta agirietan?
- Jende xeheak zer hizkuntzatan hitz egiten zuen?
- Nafarroako erregeek erabiltzen zutena euskara?
- Zer da Lingua Navarrorum?
- Zer egin zuen Antso Jakintsuak 1167an?

Erantzunak elkarretaratu. Gogoetatu eta, ondoriozta: Nafarroako erresuman hiru hizkuntza erabiltzen ziren nagusiki: latina, nafar-erromantzea eta euskara edo *Lingua Navarrorum*.

- Gidaliburuko *Gehiago jakin* saileko lehen mapa eman ikasleei eta horrekin batera *Euskararen gaurko egoera Nafarroa Garaian* izeneko mapa ere. Ikasle taldeak antola eta bakoitzari bi mapak eman.

- Zein dira Erdi Aroko mapan agertzen diren hizkuntzak?
- Bigarren mapako informazioak zein dira?

Bi mapak erkatuz.

- Zer gertatu zaio hizkuntza bakoitzari?
- Zer pentsatzera ekartzen du horrek?

NAFARROAKO ERRESUMA ETA EUSKARA

OROI

Erdi Aroan, Nafarroako erresuman:

- Herri xehea gehienik euskaraz mintzo zen iparraldean; Erriberan, aldiz, nafar- erromantzez.
- Errege gorteko eta administrazio agirietako hizkuntza latina zen hasieran.
- XIII. mendetik landa, latinari erromantzeak nagusitu zitzaizkion, bereziki nafar-erromantzea.

Gaur egun, euskararen erabilera ttipitua da; Nafarroa iparraldean erabiltzen da gehienbat.

Erromantzeak desagertu ziren.

Nafarroa hegoaldean, gaztelera mintzatzen da, nahiz eta batzuk euskara berreskuratzen ari diren.

EBALUAKETA

Nafarroan Erdi Aroan erabiltzen ziren hiru hizkuntzen izenak eman itzazu.

Erdi Aroko Nafarroan, nork erabiltzen zuen gehienik euskara?

Gaur egun zein hizkuntzatan mintzo dira nafarrak?

ZAZPIGARREN KAPITULUA

Nafarroako erresumaren zatiketa

NAFARROAKO ERRESUMAREN ZATIKETA

Nafarroako erresumaren zatiketa

Helburuak

- Nafarroaren eta Euskal Herriaren historiari dagokion garai garrantzitsu bat ezagutu.
- Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea bereizi.
- Nafarroako eta Frantziako historiaren arteko zubi edo lopide batzuk aurkitu.

Metodologia gaitasunak

- Mapa baten irakurtzen ikasi.
- Leienda batez baliatzen ikasi.
- Arazo egoera batzuei erantzunak bilatu.

Materiala

- Fitxategiaren 28. orrialdea (dokumentua).
- Fitxategiaren 38. orrialdea (ariketa-fitxa).

Hitz gakoak

Gaztela – konkista – Labriteko familia – Nafarroa Garaia – Nafarroa Beherea

GEHIAGO JAKIN

Nafarroaren konkista

1512ko uztailaren 25ean, Albako dukeak Gaztelako erregearen eskutan ezarri zuen Iruñeko hiria. Labriteko Joan Nafarroako erregeak bere familiarekin ihes egin behar izan zuen eta Biarnon kokatu. Emeki-emeki, Nafarroako beste hiriak ere Gaztelaren meneko erori ziren, hala nola Zangoza, Erriberri, Tafalla...

Nafarren erresistentzia

1512an beti, baina urrian, Labriteko Joanek bere iheslekutik armada bat muntatu zuen eta Nafarroa Garaian sartu. Baina gibelera egin behar izan zuen laster.

1521ean beste entsegu bat izan zen Nafarroaren berreskuratzeko: Frantziako Frantses I.ak antolatutik, nafar gudariak Iruñea berreskuratu zuten eta beste hiri nagusiak libratu. 1521eko ekainean, Noaineko gudaldian (Iruñea ondoan), gaztelar tropek, gipuzkoarrek eta bizkaitarrek lagundurik, nafarrak berriz bentzutu zituzten. Lizarran ere sekulako erresistentzia izan zen gaztelar gudarosteen aurka. San Martin Ameskoako jaunak 1542ko urrian amore eman behar izan zuen, gudu gaitza egin ondoan. Tuteran ere gudaldi gogorrak izan ziren.

NAFARROAKO ERRESUMAREN ZATIKETA

Nafarroako erresumaren zatiketa

Amaiurko gazteluaren ihardukitzea

Amaiurko gazteluak gaztelarren aurka atxiki zuen oraino zenbait denboraz. 10 hilabetez buru egin ondano, 1522ko uztailaren 19an etsaiaren eskutara erori zen. Nafarren erresistentzia horretan gelditu zen.

Lauaxetaren olerkia (Valverde-k kantaturik)

AMAYUR GAZTELU BALTZA

I

Amayur gaztelu baltz ori
berreun gudari oro sumin
zaintzen zattuben zaldun onak
Naparra-aldez egin dabe zin.

Izkillu gorriz zenbat gazte
bildur-bako mendittar larden.
Eta orreik, Yatsu jaun orreik,
Jabier' eko zaldun guren.

Ikurrin bat kate ta lilli
torre gottijan zabal dago.
Bera salduko daun semerik
mendi onetan ezta jayo.

Amayur'ko ate-zain orrek
zidar turutaz oyu-egik.
Baztan-ibarran zenbat etsai,
arrotz-gabe eztago mendirik!

II

Esitturik Amayur dauko
Miranda'ko konde Españarrak.
Orreik bai burnizko janzkijak,
ta urrezko ezpata-sagarrak!

Berekin dator, bai berekin,
Lerin'go eta orren semia.
Txakur txarrak jango al abe
erri-bako zaldun dongia.

Goiko aldetik asten dira,
asten dira subaga-otsez.
Orma-kontretan zenbat zurgu,
eta gezi zorrotzak airez!

Baña torrean zabal dabil
ikurrin bat kate ta lilli
Nok zapaldu ete dagikez
berreun gudari orok zoli?

III

Amayur'ko gaztelu baltza
jausi yatzuz torre gottijak.
Baña, arrotza, etzadi geldu,
napar-seme dira gustijak.

Arresi gorri, zubi ausi,
zein gitxi diran zaldun orreik.
Erijo, samurño zakije
aberri-min baitabiltz eureik.

Miranda'ko konde gaizto orrek
jo egixuz zidar-turutak.
Ikurrin bat kate ta lilli
eztaun laztanduko axeak.

Berreun gudari oso sumin
gaztelu-pian dagoz illik.
Ordutik ona, zenbat laño,
Naparruan ezta aberririk.

Lauaxeta

Esteban Urkiaga "Lauaxeta" 1905-1937: kazetari eta olerkari bizkaitarra. Espainiako gerla zibilaren garaian, Euskal gudarostean sartu zen aitzindari. Atxilotu eta fusilatu zuten frankistek. Egunkari eta aldizkari anitzetan idazten zuen eta olerki bildumak ere: *Bide barrijak* 1931n, *Arrats beran* 1935ean eta *Olerkiak* 1974an. Ideia eta eredu berriak ekarri zizkion euskal literaturari.

NAFARROAKO ERRESUMAREN ZATIKETA

Nafarroako erresumaren zatiketa

Labriteko Joana

Labriteko Joana 1528an Pauen sortua, Henrike II.a Nafarroako erregearen eta Margarita Nafarroako erreginaren alaba zen. Nafarroa Garaia Gaztelaren meneko izanez, Nafarroa Beherearen jabe baizik ez zen. Labriteko dukerria (Landetako eskualdean), Biarno eta Foix eskualdeak ere bere esku zeuzkan denbora batean. Clèves-eko dukearekin ezkontarazi zuten baina 1545ean ezkontza hori hautsarazi zuen. 1548an berriz ezkondu zen Antonio Bourbonekin. Bourbontarren etxea frantses dukerri ospetsua zen. Henrike III.a Nafarroako Erregea haien semeak Frantziako koroa hartu zuen 1589an Henri IV. tituluarekin.

Joanaren erreinuan, Donapaleun jarri zuten Justizia Gorte Nagusia, Erret Kantzileria eta Moneta etxea.

Labriteko Joana erlijio protestantearen defendatzaile suharra izan zen garai kalapitatsu haietan ezen sekulako gatazkak gertatu ziren katolikoen eta protestanteen artean. Joanak agindurik, 1571n Joanes Lizarragak Testamentu Berria euskaratu zuen.

Nahiz eta Nafarroa Beherea erlijio guduetatik begiratzen anitz saiatu zen Labriteko Joana, gerla hori piztu zen eta azkartuz joan. Beaumondarren eta Agramondarren arteko kalapitek kalte handiak egin zituzten Nafarroa Behereko eta Zuberoako eskualdean.

Joanaren erretratua

Pinturako erretratuaren generoa Aitzin Aroan garatu zen eta Erdi Aroan aldiz gibelatu. Errege-erreginen erretratu guti daukagu XIV. mende erdia arte. Berpizkundean, pertsonalitateari garrantzia gehiago emanez bezala, erretratuaren ohidura azkartu zen. Joanaren erretratu ederra bilakaera horren lekuko dugu.

Biarnoko eta Nafarroako Printzea Frantziako Errege

1553an sortua, Henrike, Nafarroako Antonio Bourbon erregearen eta Labriteko Joanaren semea zen. Aita Frantziako Luis IX.a Santuaren odol leinutik zetorkion eta ama, Joana Labritekoa aldiz, Frantses I.aren familiatik. Odoleko printzea zen. 1572an Frantziako erregearen arrebarekin ezkondu zen.

Garai hartan erlijio gudu larria jasaten zuen Frantziak katolikoen eta protestanteen artean. Henri III.a Frantziako Erregea erail zuten eta horrek ondorengorik ez zuelakotz, Nafarroako Henrike Frantziako Errege izendatu zuten 1589an, Henri IV izenarekin.

Henri IV.ak katolikoen aurka egin zuen, bera protestante izanik. Espainiari ere gerla egin zion. Baina geroxeago, katoliko bilakatu zen eta Espainiarekin baketu; erlijio tolerantzia segurtatu zuen Frantzian, Nantes-ko ediktuari esker, 1598an. Henri IV.ak Nafarroa Beherea Frantziako koroari lotu zion behingoz, 1607an.

NAFARROAKO ERRESUMAREN ZATIKETA

Nafarroako erresumaren zatiketa

JARDUERAK

- 38. orrialdeko ariketa-fitxa:

Nafarroako mapan gorriz eman 1512 aitzineko erresumaren inguruak eta berdez ondotikakoak.

Gaztelak Nafarroa bereganatu zuen 1512an. Konkista hori erresistentziarik gabe egin ote zen? Ikerketa bide horretan ezarriko dira ikasleak. Erresistentzia horren aztarnak badaude Iruñean (Iruñeko setioa), Amaiurren, Martzillan (Ana de Velasco gazteluzainak gaztelua defenditu zuen 1516an gaztelarren aurka) edo Noainen. Internet eta entziklopediak baliatuko dira. (www.es.geocities.com)

- Amayur gaztelu baltza Lauaxetaren testua eman.

Lauaxetaz ikerketa laburra egin dezake talde batek; beste talde batek Amaiurko gertakari historikoez; azken talde batek olerkiaren edukia lan dezake esaldi batzuen ulermenari mugatuz. Ondotik taldeen lanak bildu eta klase osoan aurkeztu.

Valverderen kantua entzun.


- Idazlea nor da?
- Zein euskalkitan idatzia da olerkia?
- Zer kontatzen digu?
- Noiz idatzia da? (ikerlana)

- Erretratuak: Labriteko Joanaren potretari begiratzuz konpara daiteke XI. edo XII. mendeko dauzkagun errege-erreginen irudikapenekin. Aldaketa handirik ba ote da erretratuen egiteko moldeetan? Zein?

- Henri IV.a Frantziako Erregea

Gogoetatu: zergatik 1589an Nafarroako Henrike III.a Frantziako Errege bihurtu zen? Haurrek dokumentazioa bilatuko dute.

Nafarroako gaztelu zenbaiten erresistentzia gaztelar tropen aurka XVI. mendean



NAFARROAKO ERRESUMAREN ZATIKETA

OROI

1512an Gaztelako Errege zen Fernando Katolikoak Nafarroa bereganatu zuen. Erresistentzia eta gatazka franko izan ziren, hala nola Iruñean, Martzillan, Noainen eta Nafarroako beste leku anitzetan. Nafarroako erregea Biarnoko Paue hirira etortzera bortxatua izan zen.

1530etik harat, nafar errege-erreginek Nafarroa Beherea baizik ez zuten beren eskumenean.

1589an Nafarroako Henrike III.a, Frantziako eta Nafarroako Errege bilakatu zen, Henri IV.a izenarekin.

EBALUAKETA

Mapa batean Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea koka.

Testu hau kopia hutsuneak betez: Henri IV – Nafarroa Beherea – Fernando Katolikoa – Nafarroa Garaia


1512an Gaztelako erregeak Nafarroa guzia bereganatu zuen.

Ondotik Gaztelaren meneko gelditu zen

eta aldiz Nafarroako erregeen esku.

1589an Nafarroako erregea Frantziako Erregea bilakatu zen.

**Nafarroa Beherea eta
Nafarroa Garaia
ingura.**



BIBLIOGRAFIA

Argia aldizkaria, 1837. zenb., 2000ko urtarrilaren 13a.

Barbero / Vigil, *Sobre los Origenes sociales de la Reconquista*, Bartzelona, 1979.

Egaña Iñaki, *Euskal Herriaren historia XXI. mendeko haurrei kontatua*, Axuri beltza bilduma, Txalaparta argitaletxea.

Euskal Herria diapositiba bilduma, Gipuzkoako ikastolen elkarte, 1985.

Goyheneche Eugène, *Bayonne et la région Bayonnaise du Xlième au XVIème siècle*, Euskal Herriko unibertsitatea, 1990.

Goyhenetche Manex, *Histoire générale du Pays Basque*, tome I, Elkarlanean, 1998.

Histoire Géographie 5ème, Collection Knafou-Zanghellini, Belin, 1997.

Histoire géographie 5ème, Hatier.

Intxausti Joseba, *Euskara euskaldunon hizkuntza*, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia, 1990.

Iparraldeko gazteluak, *Atlas historikoa*, LUR entziklopedia.

Lacarra Ducay Maria del Carmen, *Monastère de Leyre*, Editur.

Lacarra J. M., *Estudios de historia de Navarra*, Iruñea, 1974.

Lauburu, *La cathédrale au coeur de la cité Bayonne*, dossier n°3.

Leroy Béatrice, *La Navarre au Moyen Âge*, Collection l'Aventure humaine, Albin Michel, 1984.

Mega gaztetxoentzat Elkar-Gie, 1994.

Narbaiz Pierre, *Nabarra ou quand les Basques avaient des rois*, Diffusion Zabal, Bayonne, 1978.

Orella, José Luis, *Konpostelako bideak Euskal Herrian barrena*, Mensajero

Paul Hartzak J.I., *Euskal Herriko Historia*, Kriselu, 1987.

Sedes Reales de Navarra, Gobierno de Navarra, 1991.

Edukia:

Mixel Ernaga (Ikas), Maialen Bidegain, Maite Erdozainzi
eta Maialen Hiribarren irakasleen
bai eta Alazne Petuya Seaskako pedagogia aholkulariaren esku hartzearekin.

Maketazioa:

Mikel Leoz
Ikas-eko Xabier Elizondoren esku hartzearekin

Argitalpenaren arduraduna:

Aines Dufau (Ikas)

Berme zientifikoa eta pedagogikoa :

Xabier Zabaltza historialaria, Piarres Charritton euskaltzaina
eta Hezkuntza saileko ikuskaritza.

Argitaratzaileek jende eta erakunde hauek eskertzen dituzte:

edukiaren lantzen lagundu duten irakasleak,
Antton Kurutxarri historia irakaslea
eta Marko Armspach marrazkilaria

irudiak edota testuak eskaini dituzten idazleak, argazkilariak,
argitaletxeak eta erakundeak, eta bereziki:

Beñat Errekalde, Claude Labat eta Lauburu elkarteak, Ruffieux anderea eta Hatier argitaletxea,
Nafarroako gobernua, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua,
Baionako artxibotegiko arduraduna eta Baionako herriko etxea, Crédit mutuel-en liburutegi alsatiarra,
Frantziako liburutegi nazionala, Frantziako artxibo nazionalak, Frantziako Réunion des musées nationaux erakundea,
Gipuzkoako ikastolen elkarteak, Elkarlanean, Erein, Txalaparta eta Iruñeko Aurrezki kutxa.

